ZER IRIZTEN DIOZU ABUZTUAN HAINBAT ZERBITZU, TABERNA,...ITXITA EGOTEARI? /7


# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2001eko irailaren 7a • II. urtea • 32. zenbakia • DOAN BANATZEKOA




**Goienka2a**
Oinez egiteko zortzi ibilbide Debagoienean

**KIROLAK**
Debagoieneko futbol taldeek denboraldi honetarako helburuak jarri dituzte /10

**IÑAZIO ARREGI**
*"GOITB eta Goienkaria etxe guztietara iritsi behar badira, ezinbestekoa da udal guztien laguntza"* /8-9



EDU MENDIBIL

## Jon Odriozola, Espainiako Itzulirako gertu

Giroa eta Tourra egin ostean, Jon Odriozolak denboraldiko hirugarren itzuli handian parte hartuko du zapatutik aurrera. Txirrindulari oñatiarra itxaropentsu dago Salamancan abiatuko den Espainiako Itzuliari begira, eta etapa bat irabazten ahaleginduko dela adierazi digu. Abuztuan bere lehenengo garaipena lortu zuen, Urkiolan, eta horrek adorea eman dio eta bere buruarengan konfiantza du. Bestalde, aurten Banestorekin duen kontratua bukatzen zaio eta badirudi kontratua berritu egingo duela datozen egunetan. Odriozola Banestoko txirrindulari inporttanteenetakoa bihurtu da, azken denboraldietan egindako lanari esker. /11

**OÑATI ETA BERGARA IZAN DIRA BISITATUENAK**

# Gurera ere etorri dira turistak

Debagoiendarrok oporretan kanpora joateko ohitura handia daukagu, baina sasoi honetan gure artean kanpotarrak ere izaten ditugu, batez ere turismo kulturala egiten edo mendi inguruak ikusten. Badira urte batzuk Mankomunitatetik eta udal batzuetatik turismoa erakartzeko saiakerak egiten ari direla. Gainera, Oñatik eta Bergarak turismora zuzendutako udal bulego bana dute, eta Mankomunitateak ere badu ibarrari dagokion informazio puntua.

Turismo informazio bulegoa duten bi udalerriak dira orain arte turismo gehien dutenak. Zein turista mota eta zein asmorekin etortzen den jakiteko asmoz, eurengana jo dugu, betiere bulegotik igarotzen den jendearen datuak esku artean dituztela.

Oñati da bisitari gehien izan diuen herria, baina, hala ere, iazko datuekin alderatuz nolabaiteko jaitsiera izan du. Bergarak, ordea, bisitarien gorakada bizi izan du urterik urte. Gainerako herriek, aldiz, ez dute turismoa sustatzeko saiakera handirik egin orain arte. Bestalde, eta bitxikeria gisa, Oñatiren kasuan, abuztuan espainiarrak baino europar gehiago gerturatu dira herrira. /3






**ARETXABALETA**

### Alkateak jasotako mehatxuzko gutuna gaitzesteko mozioa onartu da

Aretxabaletako alkate Anjel Bergaretxek mehatxuzko gutuna jaso zuen abuztuaren 20an Udaletxean. Kartazalaren barruan bederatzi milimetroko parabellum bala bat eta "hurrengoan ez duzu huts egingo, zuk eta zure senitartekoek sentituko duzue" zioen mehatxu-esaldia aurkitu zituen.

Alkateari elkartasuna adierazteko, Batasunak mozioa aurkeztu zuen martitzenean egindako ezohiko bilkuran, eta zapatu arratsaldean kale bilkuran parte hartzeko deialdia egin zien herritarrei. /5

**ARRASATE**

### Herriko errolda berrituko da

Bi hilabetez jardungo dute 16 lagunek Arrasateko biztanleen datuak berritzen. Hamar urtean behin egiten da berritzea eta horretarako etxez etxe ibiliko dira galdeketa egiten. Inkesta hauetako datu guztiak jaso ostean liburua argitaratuko dute emaitza guztiekin. /5

HERRIZ HERRI/4-5 • GUTUNAK/6 • IRITZIA/7 • KIROLA/10-11 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • DENBORA-PASA/21 • TELEBISTA/22


Iraila
Arantzazuko Amaren eguna
Ormazabal 14
Sukaldeak • Bainuak
Erakusketa berriaren inaugurazioa
Artzain txakur txapelketa
Mikel Deunaren bespera eguna
Urria
Herri eguna
Ormazabal
Sukaldeak • Bainuak
Santa Marina, 4
Tel. 943 78 30 58
Apaolaza, 2
Tel. / Faxa 943 78 16 40
20560 OÑATI

# Turistak gure artean

## Poliki-poliki sendotuz doa eskaintza turistikoa

...ER BARANDIARAN

Debagoiendarrak oporretan kanpora joateko ohitura handia daukagu, baina sasoi honetan ...re artean kanpotarrak ere iza...n ditugu, batez ere turismo kul...rala egiten edota mendi ingu...ak ezagutzen. Badira urte ...tzuk Mankomunitateak eta ...dal batzuek turismoa erakar...eko saiakerak egiten dituzte...tik. Gainera, Oñatik eta Ber...rak turismoari zuzendutako ...lego bana dute, eta Manko...unitateak ere badu bere infor...azio puntua.

Turismo informazio bulegoa ...ten bi udalerriak dira orain ...e turismo gehien dutenak. ...en turista mota eta zein asmo...kin etortzen den jakiteko euren...na jo dugu, beti ere, bulegotik ...rotzen den jendearen datuak ...ik dituztela eskuartean . Ber...rako Turismo bulegoko Isabel ...pezen esanetan, “uztailean ...de dezente etortzen da; abuz...n, asko; eta irailean ere nahi...xo”. Horien artean, euskal...n askotxo daude, gehienbat ...kaitarrak; eta estatu espai...rretik ere asko etortzen ei ...a, batez ere katalanak –egu...ro bat gutxienez– eta madril...rrak. Bitxikeria gisa, aipatu ...arra dago Sevilla aldetik ere ...rgararantz jotzen dutela, uda...rrian dagoen Jesukristoren iru...a ikustera. Bestela, bulegoak ...rak eskaintzen duen doako ...taldi gidatuan elizak, jaure...ak eta udaletxea erakusten ...tzte batez ere. Bergarako Uda...a herriaren eskaintza turisti...aren *mailing*ak egin izan ditu, ...a katalanez ere plazaratu ditu. ...ri dela eta, gorantz egin ei du ...rtengo turista kopuruak.

### ...NTZAZU NAGUSI

...rgarak baino turista gehiago ...kartzen ditu Oñatik , Aran...zuk batez ere, noski. Turismo ...legoko Edurne Gorostidik azal...takoaren arabera, gainera, ...rtuan izan behar da Arantza...ra jotzen duten asko ez direla Oñatira jaisten. Bergaran ez bezala, Oñatira jotzen dutenak badakite udalerrian zer duten ikusteko. Horien artean, euskaldun asko, katalanak, madrildarrak eta atzerritar dezente. Bestalde, abuztuan, Unibertsitatea egunero bisitatzeko aukera egon da, eta jende andana pasatu da handik, baita San Migel parrokia eta Bidaurretako monasteriotik ere. Bailaran nagusi den turismo kulturalaz gain, turismo erlijiosoak eta mendikoak ere garrantzia dauka hantxe. Izan ere, Araotzeko ingurua eskalatzaileen gune garrantzitsu bilakatu da, eta estatu espainiarretik ez ezik, Estatu Batuetatik ere etorri dira hara eskalatzera. Oñati Debagoieneko herri turistikoena bada ere, arazo bi dauzka: bata, herrian bertan, pentsio bakarra dagoela, ostatu gehienak Arantzazu inguruan baitaude (hotel berria eraikitzen dabiltza erdialdean) eta Arantzazuko turismoa herrira ez jaistea.



Bergarako ondare arkitektonikoa ezagutzen. ARTXIBOA

### ENPRESA TURISMOA

Oro har, bailarako beste herriek ez dute turismo eskaintza askorik landu. Horra hor, esaterako, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza. Hotel Mondragonen kontatu zigutenez, turismo arrazoiengatik hantxe ostatua hartu dutenak ez dira %3ra heldu. “Gehien-gehienak enpresa kontuengatik datoz, baina egia da inguruak zein Donostia eta Bilbo ikustea ere gustuko izaten dutela” azaldu zigun harrerako Cecilia Ipiñak.

Aretxabaletan, Urkulu inguruan, Mitarte Garai nekazal turismoan esaterako, enpresa gizon eta emakume askok hartzen dute ostatu , eta Kataluniatik, Euskal Herritik edota Espainiatik bisitak izaten dituzte. Nekazal turismoaren arduradun Mariasun Zaloñaren esanetan, “udal guztietan beteta edukitzen dugu Mitarte Garai, eta turista zein enpresariak izan, inguruengatik galdetzen digute, eta daukaten denboraren arabera gustura ikusten dituzte inguruak”.

Ingurune industrializatu honetatik gertu-gertu baina lasaiago, Leintz Gatzagako Gaztainuzketa Mendi Etxeak eta jatetxea daude. Arduraduna den Lorenzo Larrañagaren arabera, ia urtero 28 lagunendako duten eskaintza beteta egon da, baina aurten nolabaiteko beherakada izan dute ostatuan, ez ordea jatetxean, azken honetan inoiz baino janari gehiago eman baitute. Bestalde, Euskal Herriko eta Espainiako sendiak nagusi izaten dira, ez ordea atzerritarrak.

## Bergara eta Oñati turistikoenak

**Bailaran dauden bi udal turismo bulegoetako datuak kontuan hartuta, Oñati da bisitari gehien duen herria, baina iazko datuekin alderatuz nolabaiteko jaitsiera izan du. Bergarak, ordea, bisitarien gorakada bizi du urtez urte. Beste herriek, ordea, ez dute turismoa promozionatzearren saiakera handirik egin. Bestalde, Oñatiren kasuan abuztuan zehar espainiarrak baino europar gehiago etorri dira.**

| BERGARA | |
|---|---|
| Bergararrak | 396 |
| Euskal herritarrak | 654 |
| Katalanak | 247 |
| Madrildarrak | 138 |
| Europarrak | 213 |
| Hego eta Iparramerikarrak | 36 |
| Asiarrak | 2 |
| **Guztira** | **1.900** |

| OÑATI | |
|---|---|
| Euskal herritarrak | 1.230 |
| Katalanak | 286 |
| Madrildarrak | 128 |
| Europarrak | 288 |
| Hego eta Iparramerikarrak | 46 |
| Mundukoak (gainontzekoak) | 43 |
| **Guztira** | **2.205** |

(Datu hauek ekainaren 14tik abuztuaren 31arte jaso dituzte, udal turismo bulegoetara informazioa eskatzera joan direnak zenbatuz)

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko irailaren 7a

**OÑATI** KULTURGUNEA ARANTZAZUN

# Arantzazuko seminarioa izandakoa kulturgune bihurtuko dute

*Jaurlaritzak 436 milioiko dirulaguntza emango die frantziskotarrei*

AINTZANE IRIZAR

Eguazten goizean, hitzarmena sinatu zuten Arantzazuko frantziskotarrek eta Eusko Jaurlaritzak. Juan Jose Ibarretxe lehendakaria izan zen hantxe, Jaurlaritzaren ordezkari gisa, eta Jose Mari Arregi, berriz, frantziskotarren izenean. Eguaztenean sinatutako hitzarmenaren bitartez, 436 milioiko dirulaguntza eman die Jaurlaritzak frantziskotarrei. Horietatik, 52 milioi V. mendeurreneko kultura ekitaldiak laguntzeko izango dira. Gainerakoa, berriz, kulturgune berria egiteko erabiliko dute.

Eguaztenean bertan aurkeztu zuten aipatutako kulturgune berriaren proiektua. Seminarioa zegoen tokian egingo dute, eta gaur egungo eraikinaren zati handi bat bota egingo dute. Frontoiak ere bota egingo dituzte. Horrela, leku publikoa handitu eta topagune atsegina lortzea da euren helburua. Izan ere, gaur egun Arantzazuk ez dauka aisialdirako toki zabalik.

Seminarioa duela hamabi urte itxi zuten, eta proiektu berri honekin frantziskotarren nahia da seminarioari erantzun gaurkotua ematea eta kulturaren eta gizartearen esku uztea.

Kulturguneari dagokionez, seminarioa dagoen eraikinean egongo da, esan bezala. Hainbat kultura ekintzetarako erabiliko da: museo etnografikoa jarriko dute hantxe, 200 lagunendako batzar aretoa egingo dute, baita erakustokiak eta ikasketa gelak ere. Liburutegia eta kafetegia ere egingo dituzte kulturgune horretan. Dena dela, ez dute datarik jarri hori guztia egiteko.



J. M.Arregi frantziskotarra eta lehendakaria hitzarmena sinatzen. GORKA ETXABE

**BERGARA** HARAGI GISATU LEHIAKETA

# Jon Leturia/ Harakina

## *"Haragia bultzatzeko antolatu dugu lehiaketa"*

MONIKA BELASTEGI



**San Martin jaien barruan, hilaren 15ean, Okela Gisatu II. lehiaketa jokatuko da, Munibe plazan, 10.00etatik aurrera. Izena emateko epea hilaren 11n itxiko da, eta lehenengo hamarrek izango dute lehiatzeko aukera. Herriko sei harakinek antolatu dute. Hara zer kontatu digun horietako batek, Jon Leturiak.**

**Nolatan haragi gisatu lehiaketa?**

Haragiari bultzadatxoa emateagatik, batez ere azken boladan haragiaren inguruan entzuten den guztiagatik.

**Lehiaketa ez da bakarrik bergararrentzat.**

Ez, Debagoien osora irekita dago. Gipuzkoako Federazioan haragia oinarri duten lehiaketak antolatzeko asmoa azaldu zen. Bailaraka egindako lehiaketak, eta hori dela eta, guk Debagoienekoa antolatu dugu. Gero, Gipuzkoako bailara bakoitzeko irabazleekin Gipuzkoako lehiaketa egitea aurrez ikusi dute. Baina nahiko poliki doa.

**Parte hartu nahi duenak zer jakin behar du?**

Gogotsu etortzea besterik ez du. Okela guk jarriko dugu, eta baita saltsarako barazkiak erosteko 4.000 pezeta eman ere. Tresnez ere gu arduratuko gara. Hori bai, okela gisatua baloratuko da, ez okeladun menestra bat. Epaimahaia Koldo Lasa, Adrian Arresigor eta Inazio Beldarrainek osatuko dute, eta sariak onak izango dira.

**ANTZUOLA**

# Domekan, Finalista Eguna ospatuko dute Trekutzen

AINTZANE IRIZAR

Urteroko ohiturari jarraituz, mendizaleen jaia ospatuko dute datorren domekan, irailak 9, Trekutzen. Aurtengoa 27. aldia izango da. Goizeko 09:00etan herriko plazatik abiatuko dira, eta bizpahiru orduz herri inguruko mendietan ibilaldia egin ondoren, Trekutzera iritsiko dira mendizaleak. Gaztelugaineko txabolan hamarretakoa egin ahal izango dute, txorizoa eta salda hartzeko aukera izango dute besteak beste goseak amorratzen dauden guztiek. Arrolakoek bazkaritarako mahaiak ere jarriko dituzte, baina bazkariari dagokionez, nork berea eraman beharko du. Edaria, berriz, ez da etxetik eraman beharrik izango, taberna jarriko dute-eta Trekutzen. Zer edo zer fresko-freskoa edateko aukera egongo da, beraz.

Bazkalostean, jolaserako eta dantzarako aukera izango dute Finalista Egunera joaten direnek: alde batetik, herriko trikitilariak arituko dira, eta, bestetik, umeendako hainbat joko antolatu dituzte Arrolako arduradunek.

**ELGETA** KIROLDEGIA ZABALTZEKO AHALEGINETAN

# Bolatokia itxita. Zerbitzu minimoak baino ez kiroldegian

*Kiroldegia hartu behar zuen enpresak ezetza eman du eta deialdiak zabalik dirau*

IBAN ARANTZABAL

Kiroldegia hartzeko egindako deiari enpresa batek baietza eman bazion ere, atzera egin du. Iraila heldu den arren, kiroldegiak itxita jarraitzen du. Itxita dago bai jatetxe-taberna baita kiroldegia ere.

Bazirudien abuztuaren erdialdera Eibarko enpresa batek zabalduko zituela ateak Uarkapeko (Arrasate) langileak hartuta. Langileek huts egin dute eta enpresa hori langile barik geratu da. Ondorioz, eta ezer sinatu barik zutenez, atzera egin du enpresak, langile falta dela-eta. Oraindik badu interesa enpresa horrek eta edonork lan egiteko gogoa balu Udaletxean emango dio enpresa horren berri, izan ere, Udala prest dago langileak bananbanan hartzeko zein kiroldegia talde bati esleitzeko ere.

Udalak ahalegin berezia egiten dihardu arazoari irtenbidea emateko. Kirol zinegotziak adierazi digunez, oraingo egunetan pare bat batzar egin dituzte eta tartean garbiketan eta jan-prestaketan aritzen den enpresa batekin batu dira, Auzolagunekin, hain justu. Batzar horrek zer emango duen ikusteko dago. Oñatitik sukaldari batek deitu du eta Elgetan bertan ere pare bat lagunek adierazi dute lan egiteko borondatea.

Uztailean guztia lotuta izatetik irailean kiroldegia itxita edukitzera igaro da. Egun, ordea, aerobica egiteko, soinketarako eta eskolako umeendako ez da arazorik izango.

Udalak argi du onena pakete osoa enpresa edo lagun talde bati ematea dela, baina ez du baztertzen batetik kiroldegia eta bestetik jatetxea esleitzea. Udaletxearen egiteko nagusienen artean dago zerbitzu osoa iralean martxan jartzea.

**Zertzelada**

**Udalak ahalegin berezia egiten dihardu kiroldegia lehenbailehen zabaltzeko. Aukera ona dela argi du Udalak eta, hortaz, deialdi zabala egin du berriz ere**

**ESKORIATZA** EGOITZA BERRIA

# Udal Euskaltegiak egoitza berria du 2001-2002rako

*Hemendik aurrera, Eskoriatzako Intxaurtxueta auzoan emango dituzte eskolak*

SAIOA OJANGUREN

Leintz Udal Euskaltegiak ez du sekula ere lokal edo egoitza egokirik izan eskolak emateko. "Herriko plazako eraikin batean jardun genuen urte askoan eskolak ematen. Hotz egiten zuen, zarata handia ere bai... Baldintzak ez ziren batere egokiak. Horregatik guztiagatik, eskoriatzar asko Aretxabaletara joaten zen euskarazko eskolak hartzera. Horrela, plazako egoitzan eskolarik ez ematea erabaki genuen. Eta talderen bat osatuz gero, Kultura Etxean ematen genituen eskolak", argitu digu Karmele Agirregabiriak, Leintz Udal Euskaltegiko zuzendariak. Eskoriatzako euskarazko ikasleek lehenengo aldiz egingo dute ikasturte osoa Intxaurtxueta auzoko egoitza berrian.



Intxaurtxuetan dago Leintz Udal Euskaltegiaren egoitza berria. SAIOA OJANGUREN

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko irailaren 7a

# Zabalik



ANDRES OSA "SAKONA"

## Sokari tiraka

Munduko Kirol Ez Olinpikoen txapelketak Japonian jokatu dira oraintsu. Tartean sokatira izan da. 480 kilotan Sakanak domina lortu zuen erakusketa gisan. Espainiako ereserkia entzutean podiumetik jaitsi egin ziren sakanar neskak. Jarrera honek sekulako haserrea sortu zuen antolatzaileen artean eta zigorra ezarri zioten Euskal Federazioari.

Irakurleak jakin behar du Nazioarteko Sokatira Erakundeak (TWIFek) bere txapelketa propioak eratzen dituela urtero, goma eta lurgainean, mundu eta Europa mailan. Gure tiratzaileentzat, txapelketa hauek garrantzi handia dute. Euskaldunek eramaten duten bandera eta ereserkia TWIFnak izaten dira, ez espainolak, eta txandalean eta elastikoan Euskadi izena erabiltzen dute. Lorpen ikarragarria. Beste kiroletan egin ez dena egin da sokatiran.

Japoniara joan aurretik ohartarazi zuten argi eta garbi, Kirol Ez Olinpikoetan, Japonian, Espainiako bandera eta ereserkia inposatuko zutela beste kiroletan egiten den bezala, baina erne, inportantea baita Europako nahiz Munduko Sokatira Txapelketetan, TWIFek antolatzen dituen txapelketetan hain justu, Euskadi izenarekin eta TWIFen bandera eta ereserkiaren babesean arituko direla, orain arte bezala, Espainiakoa alboan lagaz. Nuarbek, Gaztedik, Abadiñok, Aresok, Beti-Gaztek, Goierrik, Mutrikuk eta abarrek horrela lortu dituzte dominak. Baina, talde hauek zergatik ez dira jaitsi podiumetik? Beldurtiak zirelako? Gizarajoak ote? Espainolistak? Sokagainean indartsuenetarikoak direla frogatu dute eta euskalduntasuna oso goian jartzen iaioak direla ere bai. Eta, halere, gehienak Japoniako ekintzaren aurka daude, zergatik ote?

Sakanak bere kabuz egin du ekintza. Joan aurretik zergatik ez dira bildu beste taldeekin eta jarrera adostu? Japoniako baldintzak TWIFen txapelketetan ere aplikatzeko neurria hartu dute. Ea norbait gauza den lehengoa berreskuratzeko. Momentuz, nazioarteko sokatira, ilusioa, euskal selekzioa eta abertzaletasuna atzerrian zabaltzea ezinezkoa da. Bestalde, badirudi batzuk, arazo honetaz baliatuz, abertzaleagoa nor den erakusteko karrera egiten ari direla. Demagogia antzua. Beno ba, abertzaletasuna neurtzeko era zehatzik balego, derrepentean botako genuke desafioa.

# Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: iritzia@goiena.com

## Zorionak, Eltzikorta!

Berriz ere heldu da zure urtebetetze eguna eta zoritxarrez Espainiako ziegaren batean preso jarraitzen duzu. Gu hementxe gaude, zu berriz ere noiz ikusiko zaitugun pentsatzen eta desiatzen. Oso gogorra da maite den pertsona bat nahi denean ezin ikusi ahal izatea, baina zuk oso ondo dakizu zure Arrasateko bi sorgintxo hauek zure zain daudela eta zure eguna heltzear dagoenez gu biok zu zoriondu nahi zaitugu.

Oso gustukoak ditugun akelarre horietako bat egin eta unetxo batez zu gurekin izango zara dantzan, askatasunarekin bat, Arrasate edo Antzuolako txokoren batean.

Beno Josebatxo, laster hor izango gara, azkenekoz bezalaxe elkarri kontutxoak esanez. Ordura arte asko zaindu zaitez eta beti bezain jator eta maitakor segi, laztana! Zorionak, berriz ere, eta jaso ezazu adiskidetasun, maitasun eta elkartasunez beteriko besarkada eta muxutxo goxo asko! Jo ta ke presoak etxeratu arte!

IRATI ETA ALAITZ ZULOAGA
Arrasate

## Gerra zikinari stop!

Euskal Herrian ukaezina da gatazka politiko baten existentzia. Era berean, ukaezina da gatazka horrek Estatu Espainiarrarekin eta Frantsesarekin aurrez aurre jartzen gaituena.

Gatazka honen ondorio zuzenak guztion begi-bistan ditugu: bortizkeriz jantzitako eskenatokia, 500 preso politiko baino gehiagoz osatutako taldea, 2.000 iheslari baino gehiago, kaltetutako pertsona kopuru oso altua (hildakoak, zaurituak, torturatuak, errepresaliatuak,...), Euskal Herriak askatasun osoz erabakia hartzeko beharrezko diren minimoak ezartzeko ezintasuna, eta, azkenik, Euskal Herriari herri nortasuna ukatzen dion etengabeko biolentzia.

Euskal Herria menpean hartzen duten bi estatuen aldetik, indarkerian oinarritutako gerra estrategia basati eta erasokorra garatu dute gure herriaren aurka, bitarteko guztiak erabiliz (juridikoak, mediatikoak, militarrak,...).

Gerra zikina ez da gaur eguneko kontua soilik. Euskal Herriarekiko agertarazi nahi ez duten errealitate gordina dugu; indar okupatzaileez baliatuz aurrera eramaten dutena. Estatu Espainiarraren babes osoarekin "Grupo de Liberación Antiterrorista" bezala identifikatzen den pertsona edo pertsona talde batek mehatxuzko gutuna bidali zion Anjel Bergaretxe alkateari. Gutunak mehatxu zuzenak, Francoren zigilu bat eta bala bat zituen. PPk eta PSOEk Euskal Herriaren aurka hasitako kanpainaren barruan kokatzen da eraso hau.

Beren burua demokratatzat dute faxista espainar hauek beren borreroak erabiltzen dituzte Euskal Herriaren alde borrokatzen duen ezker abertzalea kolpatzeko; gure eguneroko borroka eteteko: justizian oinarritutako bakearen aldeko borroka, subiranotasunaren aldeko borroka, independentzia eta sozialismoaren aldeko borroka. Ez dira konturatzen Euskal Herriak dagokiona eskuratu arte, duintasunez, aurrera egingo duela. Euskal Herriak konponbide demokratikoa behar du, euskaldunoi dagozkigun eskubide zibil eta politikoekiko begirunea, kanpo eskuhartze edo injerentziarik gabe.

Bukatzeko, gure elkartasunik beroena Anjel eta bere sendiari.

EZKER ABERTZALEA
Aretxabaleta

## Alkatearekin elkartasuna

Gure Alkatea den Anjel Bergaretxek jasotako mehatxuen aurrean zera adierazi nahi dugu Aretxabaletako Udaleko langileok:

1.- Gure elkartasuna adierazten diogu Anjel Bergaretxeri eta bere familiari.

2.- Horrelakoak gerta ez daitezen, orain arte bezala herriaren alde lanean gogotsu jarrai dezan animatzen dugu.

ARETXABALETAKO UDALEKO LANGILEAK
Aretxabaleta

## Euskara egoera minorizatuan

Euskal Herria, izenak dioen bezala, euskararen herria da, eta beste herri guztiak bezala, hizkuntza bakarrean mintzo zen. Baina, Euskal Herriak espainiar eta frantziar legedien menpe jarraitzen du, eta honek euskara bere lurralde osoan ofiziala ez izatea eta bigarren mailan egotea dakar. Euskararen herrian indarrez eta erasoen bidez ezarrita diren legediek, euskaldunen hizkuntza eskubideak etengabe urratzen dituzte. Hortaz, euskarak jasaten duen erasoen muin nagusia herri hau zatitzen duen egoera juridikoa dugu. Euskal Herria gaur egun dagoen egitura zatikatuan, euskararen berreskurapena ezinezkoa egiten zaigu.

Euskara egoera minorizatuan dagoen hizkuntza da, urteak, mendeak, joan ahala erdararen herria izateko arriskuan egon arte, denbora luze honetan jasan izan ditugun zapalkuntza mota guztien ondorioz.

Zapalkuntza honek, ordezkapen prozesu baten barnean murgiltzen gaitu: batetik, ia euskaldun elebakar guztiak desagertu dira, eta erdaldun elebakar asko dago. Bestetik, Euskal Herrian euskara bakarrik jakinda bizitzea ezinezkoa den bitartean, erdaraz bizitzea posible ez ezik, egoera arrunta bihurtu da. Hori gutxi balitz, zonalde euskaldunetan ere ezinezkoa da euskaraz bizitzea, erdaran murgilduak baitaude, administrazioa, komunikabideak, lantegiak,...

Euskararen berreskurapenerako hizkuntza politikak normalkuntza osoa bakarrik planteatu beharko luke, hau da, jatorrizko hizkuntza, euskara, lurralde osoan, biztanle guztien hizkuntza natural eta kultural komuntzat proposatzea. Politika hori hizkuntza komunitate osoari ezarri behar zaio, ez euskarari eusten dioten taldeei bakarrik, ordezkapen prozesuaren ondorioz euskara galdu duten edo hartzeko ere aukerarik izan ez duten taldeei ere.

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ
Debagoiena

# Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



## Eztabaida

Irailean, berriro ere lanera itzultzean, ohikoa izaten da oporren gainean jardutea. Besteak beste, nondik nora ibili garen eta bestetan baino jende gehiago edo gutxiago geratu den herrian izaten dugu hizpide. Bestalde, sarritan entzuten diegu etxean geratu direnei taberna, okindegi, gozotegi edo jatetxe gehienak itxita izan direla. Geroago eta eztabaida handiagoak sortzen dira, gainera, kontu horren gainean. Turismoa bultzatzeko ahalegin berezia egiten ari dira azken urteotan erakunde publikoak, baina zer itxura ematen dugu turistak gure herrira erakarri baina, gero, zerbitzurik eskaintzen ez badiegu?

# Zer irizten diozu abuztuan hainbat zerbitzu, tabernak,... itxita egoteari?

## *Bezeroen portaerak agintzen du*



JOSE IGNACIO ALTUNA
Arrasateko tabernaria

Bezeroen portaerak agintzen du. Izan ere, abuztuko lehenengo eta azken asteetan badago jendea, baina hil erdian oso gutxi, eta geuk ere une hori aprobetxatzen dugu oporrak hartzeko; hortaz, beharrez hartzen ditugu. Era berean, kontuan hartu behar da langileak ditugula, taberna eta denda askok eta askok moduan, eta langile horiek ere oporrak hartu behar dituztela; haien familiakoek abuztuan hartzen dituztenez, eurek ere orduan hartu behar dituzte. Neure esku balego, gusturago hartuko nituzke oporrak uztailean, irailean edo beste edozein hilabetetan! Arazoa da herritarrek alde egiten dutela eta zerbitzuek eta dendek itxi egiten dutela, baina kanpotik turistak baldin badatoz, guztia itxita aurkituko dutela; dena dela, guk bezeroen gehiengoaren portaerari jarraitu behar diogu, hauxe dugu-eta bizibidea ateratzeko modua! Kontuak kontu, guk normalean ez dugu kexurik izaten, nahiz eta bateren batek esaten digun herria erdi hila geratzen dela eta hemen gelditzen direnek ez dutela izaten nora joan edo zer egin, baina gutxiengoa da. Horrez gain, normala iruditzen zait, oro har, merkatariek abuztuan dendak, tabernak… ixtea; izan ere, hemengo askok Gasteizen egiten dituzte erosketak, eta abuztuan edo zubiren bat dagoenean baino ez dira akordatzen hemengoaz!

**“Neure esku balego, gusturago hartuko nituzke oporrak uztailean, irailean edo beste edozein hilabetetan!”**

## *Kolokan jartzen da aurretik egindako lana*



KOLDO PEREIRA
Bergarako Udalako turismo zinegotzia

Turismo arloan ikusten da, nolabait, gizarteak ez duela bakarrik kosta edo mendia eskatzen, barneko turismoa ere eskatzen du gaur egun. Kultura arloa (etxe zaharrak, monumentuak edo herri bakoitzak izan ditzakeen puntu ikusgarriak) abiapuntu izanik, ikusi genuen Bergarak badituela arlo horri aurre egiteko baliabide interesgarriak. Hori izan zen, hain zuzen, Turismo bulegoa martxan jartzeko abiapuntua. Honekin jarraituz, urtero-urtero Donostiako Hamabostaldiaren barnean antolatutako zenbait ekintza Bergarara ekartzeko ahalegina egin izan du Udalak eta aurten, abuztuaren 8an, organo emanaldia izan zen San Pedro elizan.

Turismo bulegoak hasieratik izandako harrera ikusita, urtez urte egun gehiagotan zabalik izan dugu. Era berean, zabaldu zen unetik bertatik dohainik izan dira bisitaldi gidatuak Bergaran, bai herriko jendearentzat zein kanpotik zetorren edonorentzat.

Bergarako jatetxe, gozotegi eta antzerako komertzioekin egindako lehen bileran, euren inplikazioa ezinbestekoa zela ikusi genuen. Erantzun nahiko ona izan zuen planteamendu horrek eta Udalak eskertzen du bere garaian egindako apustu eta jarrera. Urteak pasa ahala, eta nahiz eta turismo arloan Udalaren aportazioa gehitzen joan, zerbitzuen eskaintza murritzagoa izan da. Udalaren aldetik faltan sumatzen dugu abuztuan zehar eskaintzak egotea. Udalak ezin du inolaz ere behartu komertzioak abuztuan zabaltzera, baina Udalak ahalegina egiten badu turismoaren alde, horri aurre egiteko bestelako eskaintzak egotea ondo legoke. 1999an jaso genituen bisitari gehien, ETAren su-etena medio zela. Aurten, Turismo bulegoa irail osoan zabalik izango da eta bisitari kopurua 1999koaren antzekoa izango dela espero da.

Bestalde, Bergaran eratuta dago errelleno eta tostoien kofradia eta, aldiz, bisitariek errelleno eta tostoiak ezagutzeko aukera gutxi dute, udan behinik behin. Udalaren aldetik eskatzen diegu, batzuei zein besteei, adostasun batera heldu eta zerbitzu minimo batzuk eskain ditzatela, herriaren onerako izango delakoan.

**“Nahiz eta turismo arloan Udalaren aportazioa gehitzen joan, zerbitzuen eskaintza murritzagoa izan da”**

**DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA** — Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

## *Espainiako itzulia Euskal Herritik pastatu beharko litzateke?*

## *Gora eta Behera*

### SAKANAKO SOKATIRA TALDEA

Benetan mirestekoa eta txalotzekoa da Sakanako nesken sokatira taldeak Japoniako jokoetan izandako jarrera. Deman lortutakoa kendu egin diote, euren jarrerari tinko eustearren. Horrelako jokaera koherenteak ez dira oso ohikoak, batez ere eliteko edo goi mailako kiroletan.

### BABESIK EZA

Sakanako nesken sokatira taldeak urrats garrantzitsua eman badu ere, ez du inolako babesik izan, batez ere erakundeen aldetik. Eta, jakin beharko genuke horrelako urratsak ezerezean geratzen direla, erakundeen babesik barik. Horrela ez dago ezer lortzerik, kirolarien euren kaltea baino.



ANDONI BENGOA
Eskoriatzako Axtroki euskara elkartekoa

## *Koplak*

### *Oporren amaiera*

Aukera, bat izan daiteke
urruti bidaiatzea
eta aurretik pilatutako
estres guztia kentzea.

Jende gehiena ateratzen da
etxeetatik kanpora
urtean zehar baduelako
han egoteko denbora.

Jai dugunean betetzen dugu
barruan daukagun nahia
okerrena da bukatu dela
horretarako garaia.

Ordurik gabe, ardura gabe
alde baten ta bestean
egun batean hondartzan eta
mendian beste batean.

Orduarekin, ardurarekin
alde baten ta bestean
egun batean lanean eta
lanean beste batean.

Zeinen desberdin sentitzen garen
jarri orduko begira
uda parteko oporretatik
eguneroko bizira.

JOSEBA LASAGABASTER

**Goienkaria**
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA: Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA: Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal
ADMINISTRAZIOA: Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar
PUBLIZITATEA: Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martin
SAILETAKO ARDURADUNAK: Edu Mendibil (Kirola, Non Zer), Aintzane Irizar (Berri-Zakua), Iker Barandiaran (Asteko gaia) Goio Arana (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea)
PRODUKZIOA: Iban Arantzabal
HARPIDETZA ETA BANAKETA: Julen Aranguren
TESTUEN ZUZENKETA: Sergio Azkarate, Gari Bragado
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA: Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA: Mikel Irizar

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

## *Iñazio Arregi*

GOIENAKO ZUZENDARI NAGUSIA

# "Goiena Telebista, 'Goienkaria' eta herri aldizkariak eskualdeko etxe guztietara dohain iritsi behar badira, ezinbestekoa da udal guztien laguntza"



Goiena Kooperatiba Elkarteko Zuzendari Nagusi berria da. Orain arte zeregin horretan jardun duen Mikel Irizar ordezkatu du eta aste honetan bertan ekin dio lanari. Ikastolen mundutik dator. Izan ere, Bergarako Aranzadi Ikastolan, zuzendari, eta Partaiden aritu da orain arte. 50 urte ditu eta oñatiarra da.

ENEKO AZKARATE

**Beti egon zara ikastolen mundura lotuta. Urte askotan Aranzadi Ikastolan eta azkenaldian Partaiden. Orain, berriz, Goienara, Debagoieneko euskarazko komunikabideak kudeatzen dituen enpresara, etorri zara. Zerk animatu zaitu lan berri hau onartzera?**

Gauza bat baino gehiago dira bultzatu nautenak. Alde batetik, enpresaren helburua. Eskualdeko euskarazko komunikabideak kudeatzen dituen enpresa zuzentzea oso erronka erakargarria da Debagoienak osotasunean hartuta azken urteotan lortu duen garapen maila ikaragarria delako, eta eskualde bezala jokatuz etorkizunean lortzeko dagoena are handiagoa delako. Garapen honen lekuko eta eragile izateko aukera izatea pribilegio bat da.

Beste arrazoi bat, eta agian garrantzitsuagoa, lanean eta ordezkaritza organoetan, Kontseilu Erretorean..., dauden pertsonen balioa aurrez ezagutzea. Bi egun daramatzat lanean eta bizitza osoa hemen eramango banu bezala sentitzen dut neure burua. Hemen dauden pertsonak egon ez balira, ezinezkoa zatekeen proiektua bera, eta urtebeteko bizitzan eman dituen urratsak ematea.

**Goiena enpresa berria da, zein da une honetan esku artean duzun erronka nagusia?**

Lehenengo lurreratu. Goiena izugarrizko abiada daraman trena da eta lokomotoran lurreratu beharra daukat. Hala ere, hiru hitz jarriko nituzke erronken ardatz bezala: bateratu, hedatu eta hobetu.

Bateratzea, prentsa idatziaren mailan emango da gehienbat, herri guztietara produktu beretsua eta maiztasun berarekin helaraziz. Hedatzea, eskualde kontzeptuarekin banaezinezko helburua delako. Epe motzera GOITBko uhinak eskualdeko herri guztietan nahiko genituzke, zailtasun guztiak gaindituz. Hobetzea, derrigorrezkoa delako beste hedabideekin lehiatu nahi badugu eta aintzindari izan nahi badugu. Azpimarra dezadan azken bi urteotan Goienak 50 milioi inguru inbertitu dituela prentsa eta telebistaren arloetan. Telebistan digitalizazioa zen helburua eta une honetan tresneria guztia, berria eta teknologia horretan oinarritua da. Aprobetxatu nahi dut GOITBko ikusleei barkamena eskatzeko aldaketa une honetan izan ditugun atzerapen eta akatsengatik. Guztia zerbitzu hobe bat eskaini ahal izateagatik izan da.

Bestalde, barrura begira, bateratze prozesuari amaiera ematea da helburua, baina ez formen aldetik bakarrik baizik eta zuztarretatik hasitako hausnarketa batean oinarrituz: plan estrategikoa egin, misioa edo eginkizuna erabakiz, lan taldeak konpaktatu prozesu nagusiak definituz eta kudeaketaren oinarrian prozesuen bidezko gestioa ezarriz.

**Bailara osorako komunikabideak bultzatu eta kudeatu nahi ditu Goienak, baina oraindik ez dira zabaldu bailarako herri denetara. Zergatik?**

Beno, herri bakoitzak bere izaera dauka eta bere historiatxoa ere bai komunikabideen arlo honetan. Eskualde kontzeptua eta bere garapena berriak dira neurri batean eta horretara egokitzeko prozesuak dinamikoak dira eta ez zailtasun gabekoak. Batzuek errazago egin dute jauzia, baina beste batzuk egoera desberdin batetik abiatzen zirelako edo beste arrazoi batzuengatik bailara mailako proiektuan txertatzeko jauzia ez dute oraindik eman. Bi indar positibo horiek, eskualderanzkoa eta herriranzkoa, lotzen eta sintesi egokiena egiten jakin behar dugu, eta gure asmoa, inor derrigortu gabe, edo inoren iritziak bortxatu gabe, herri guztiak proiektuan sartzen ahalegintzea da.

Edozein modutan, alde positiboa nabarmenduz, garrantzitsua iruditzen zait esatea Debagoieneko bederatzi herrietatik seitan udalek dagoeneko onartua dutela proiektua eta horien ekarpena eta babesa funtsezkoak izan direla Goiena egitasmoa aurrera eramateko. Eurei eskerrak eman beharrean gara.

**Goiena Telebista ezin dute ikusi oraindik Oñatin, Elgetan, Antzuolan eta Bergarako hainbat tokitan. Zergatik? Arazo teknikoa al da?**

Esan dezagun arazoak teknikoak direla toki batzuetan eta ekonomikoak besteetan. Eskualdearen garapenean ezinbestekoa izango da komunikabideen papera. Goienaren produkzio osoa euskaraz da eta horrek bezero potentzialen esparrua mugatu egiten du. Hala ere, telebista eta aldizkarien mundua aztertzen badugu, garbi dago bi diru-iturri nagusi dituztela: publizitatea eta subentzioak. Guk gastuen %40a betetzen dugu publizitatearen bidez eta Jaurlaritzaren, Diputazioaren eta beste erakunde batzuen diru-laguntzekin %60ra iristen gara. Hala ere, GOITB, *Goienkaria* eta herri aldizkariak eskualdeko etxe guztietara dohain iritsi behar badira ezinbestekoa da udalen laguntza. Bergara, Elgeta eta Oñatik ez dute erabakirik hartu orain-

### ERRONKA POLITA

**"Eskualdeko euskarazko komunikabideak kudeatzen dituen enpresa zuzentzea oso erronka erakargarria da, Debagoienak azken urteotan lortu duen garapen maila ikaragarria delako"**

### ESKUALDE MAILAN LAN EGIN

**"Eskualde kontzeptua eta bere garapena berriak dira neurri batean eta horretara egokitzeko prozesuak dinamikoak dira eta ez zailtasun gabekoak"**

### GOITB ETXE DENETAN

**"Gaur egun lortu dugu GOITB Bergarako hainbat etxetara eramatea, baina herri guztira iritsi behar bada derrigorrezkoa da Udalarekin hitzarmen sendo bat lortzea"**

### TELEKOMUNIKAZIOAK ETA INTERNET

**"Interneteko atari baten proiektua tajutzen dihardugu eskualdeko beste hainbat eragile sozial garrantzitsurekin batera lantzen ari garen egitasmo orokor baten barruan"**



JUAN MANUEL BERRUETA

dik, eta horregatik, zabalkundea ez da egiten ari guk nahiko genukeen kalitate eta azkartasunez. Gaur egun lortu dugu GOITB Bergarako hainbat etxetara eramatea, baina herri guztira iritsi behar bada kalitate parametro batzuk erabiliz, derrigorrezkoa da Udalarekin hitzarmen sendo bat lortzea. Antzuolako kasua desberdina da. Udalak erabakia hartua du, baina arazo teknikoak direla eta, ezin izan gara oraindik iritsi.

**Zer da zehatz mehatz udalei eskatzen zaien diru aportazioa?**

Udalei ez diegu diru laguntza soilik eskatzen. Hau beharrezkoa dugu egitasmoak aurrera egin behar badu, baina instituzioek beste hainbat arlotan ere lagun dezakete: iritziak ematea, erabakitze prozesuetan parte hartzea, babesa eskaintzea, dira besteak beste udaletatik espero ditugun jarrerak.

Egin didazun galdera zehatz horri erantzunaz, ez da asko eskatzen zaien diru ekarpena kontraprestazioa kontuan badugu. *Goienkaria* eta GOITB herriko etxe guztietara helaraztearen truke biztanleko eta urteko mila pezeta baino ez zaie eskatzen. Pentsa, laguntza horren truke 24 orrialdeko astekari euskaldun duin bat, eta bertan ekoiztutako telebistako programazio on bat eskaintzen dela. Garbi dago Goienaren tamainako proiektu bat udalek berek zuzenean gestionatu beharko balute, asumitu beharko luketen kostua askoz handiagoa izango litzatekeela. Bestalde, Goienaren oinarrizko printzipioetan dago ahalik eta autofinantzaketa-maila handiena lortzea eta finantziazio-iturri berriak aztertzen ari gara.

**Eta, udalei Goienako erabaki organoetan parte hartzea eskaintzen zaie?**

Zalantzarik gabe, baina ez bakarrik diru laguntzak ematetik sortzen den eskubide bat delako, baizik eta benetan gizarte ekimena eta instituzioak eskutik joan behar dutela uste dugulako. Gure Errektore Kontseiluan udaletako ordezkarientzat tokia aurreikusita dago eta laster izango ditugu bertan.

**Diputazioan eta Jaurlaritzan zer erantzun jaso du Goiena egitasmoak?**

Nik dakidala oso ona. Gaur egun, Goiena eredu eta aitzindari da herri komunikabideen esparruan. Adibidez, orain dela gutxi aurkeztu diogu Diputazioari, berarekin egindako hitzarmen bati esker, Goienaren esperientzia zehatz mehatz azaltzen duen txosten bat, esperientzia hori, ahal den neurrian, beste toki batzuetan ere baliatu ahal izateko.

**Hemendik lasterrera, herrietako aldizkariak formatuz aldatuko dira eta *Goienkaria*ren barruan sartuta banatuko dira. Zela doaz gauzak?**

Hau beste berrikuntza bat da eta urrirako martxan izango dugula uste dut. Azken batean, hartzaile guztiak maiztasun berberarekin produktu beretsuak jasotzea dugu helburutzat. Informazio lokala, herrikoa, eta eskualdekoa, hau da denontzako komuna, eskainiko zaie debagoiendar guztiei, eta gaur egungo aldizkarien izenei eutsiko zaie. Aretxabaleta, Arrasate, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga, Aramaio, Elgeta, Antzuola eta Bergarako biztanleek *Goienkaria*ren barruan jasoko dute herriko aldizkaria, astero-astero. Hau egitea izugarrizko erronka da guretzat, orain arte *Berrigara* eta *Arrasate Press* baitziren asteroko maiztasuna zuten bakarrak. Berdindu beharrak formatoa aldatu beharra ere ekarri du, eta ekonomiari begiratu behar izan badiogu ere, edukien mailan asko irabaziko da orokorrean.

**Goienaren gainean ari garenean, telebista eta aldizkariak aipatzen ditugu, baina Goiena multimedia proiektua da eta, hain justu, telekomunikazioen alorra eta interneterako produktuak bultzatzeko egitasmo berria aurkeztuko da aurki...**

Interneteko atari baten proiektua tajutzen dihardugu eskualdeko beste hainbat eragile sozial garrantzitsurekin batera lantzen ari garen egitasmo orokor baten barruan. Hil honen barruan ziur asko, hainbat erabaki hartuko dira eta orduan izango gara zerbait aurreratzeko moduan.


JUAN MANUEL BERRUETA

## "Falta diren udalak Goienan laister sartzea espero dut"

**Oraintsu, Goiena egitasmoaren gainean eztabaidatu dute Bergarako eta Oñatiko udalbatzarrek..., eta ezezkoa eman ei diote Goienari.**

Beno nik dudan informazioaren arabera gauzak ez dira, zehatz-mehatz, horrela gertatu. Aktak begiratu beharko genituzke baina ez dut uste ez Bergaran ez Oñatin udalbatzarrek erabakirik hartu dutenik. Bi Udaletan hitz egin da, eta Bergaran alkateak, gobernuaren izenean, aurkako iritzia azaldu bazuen ere, Oñatin aldekoak izan ziren nagusi. Elgetan ere aldeko jarrera agertu izan dute. Nik espero dut gauzak argituko direla eta, guztion ahaleginez, laster helduko garela akordio batera, falta diren hiru udalak Goiena egitasmoan sartzeko.

**Horretarako, Goienako eta Gipuzkoako EAJ zein EAko ordezkariak hizketan ari zarete gai honen inguruan, ez?**

Bai, eta aurrerantzean ere biltzen jarraitzekotan gara. Ez bakarrik EAJ eta EArekin, baizik eta egitasmo honi buruzko ekarpenak egiteko prest dagoen edozein alderdirekin. Kasu honetan bilera bat eta hainbat harreman izan dugu. Sintonia handia dago gerora Goiena eta herri komunikabideak izan behar direnaren inguruan. Bat gatoz egitasmoaren ardatz nagusietan eta gerora begira aurreikusten den eraketan.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko irailaren 7a

# Debagoieneko futbol taldeak lanean

## Denboraldi hau zaila izango dela aurreratu dute Ibarreko futbol entrenatzaileek

**Aurtengo denboraldia hastear dago, eta Debagoieneko futbol taldeak azkeneko prestakuntza lanak egiten ari dira. Antzuolak bigarren erregional mailan, Mondrak lehen erregionalean, eta Bergarak, Aloña Mendik eta UDAk preferente mailan, helburu ezberdinekin ekingo diote denboraldiari.**

Izarren liga hasi bada ere, Debagoieneko taldeek oraindik ez dute denboraldia hasi. Hala ere, ezin esan geldi egon direnik, izan ere, abuztuko azken asteak entrenatzen igaro dituzte talde gehienek. Aurreko denboraldia eta datorrena oso ezberdinak izango direla azpimarratu dute entrenatzaile askok. Batzuek aurrekoan baino emaitza hobeak lortzeko asmoak dituztelako, eta beste batzuek, aurreko urtean egindakoa berriz egitea oso zail ikusten dutelako.



Aloña Mendik Arrasate Hiria Txapelketa irabazi zuen eguaztenean, Mondrari 0-2 irabazi eta gero. XABI URZELAI

**ARETXABALETAKO TALDEA. UDA**

Enrique Nietok bigarren urtez entrenatuko du Aretxabaletako taldea, eta aurreko denboraldian taldeak lan polita egin zuela uste du Enriquek. Lan zailena taldeak zituen ohitura batzuk aldatu, eta jokatzerako orduan sistemaz aldatzea izan zen. Aurten, jokalariek elkar hobeto ezagutzen dutenez, eta joko sistema ere hobeto menperatzen dutenez hobeto jokatuko dutelakoan dago, nahiz eta berak dioen bezala ez den batere erraza izango: " Aurten lan handia egin beharko da, besteak beste, hirugarren mailatik jaitsi diren 3 talde izango dira eta".

**OÑATIKO TALDEA. ALOÑA MENDI**

Gorka Zelaiak ez du batere argi ikusten oraingo denboraldia. Aurreko urtean entrenatzaile horren taldeak lan bikaina egin zuen, eta hirugarren mailara igotzeko borrokan aritu ziren. Denboraldi honetarako gauzak asko aldatu dira, eta taldeko oso gaztea dauka, beraz maila horretan mantentzea izango da aurtengo helburu nagusia. Horrez gain, bi talde hauetako entrenatzaileek, Gorkak eta Enriquek oso ikuspegi berezia daukate: "Hemengo taldeek ezin dute hirugarren maila batean jokatu. Horretarako apustu sendo bat egin behar da, eta ez dago horrelakorik".

**ARRASATEKO TALDEA. MONDRA**

Seguruenik, Raul Leiba, Mondra taldeko entrenatzaileak izango du talde guztietatik lan zailena. Bere taldea erregional mailan dago, eta preferentera igotzeko lan egin beharko dute aurten. Ezbairik gabe, denboraldi gogorra daukate aurretik, baina taldeak behin baino gehiagotan erakutsi du, helburu hori betzeko gai dela. Lan hori betetzeko gauza bat falta zaie, erregulartasuna.

**BERGARAKO FUTBOL TALDEA**

Talde bergararra hirugarren mailatik jaitsi berri da, eta hainbat aldaketa izan dituzte. Juanina Garaik, Bergara taldeko entrenatzaileak ere oso argi dauka preferente maila oso gogorra dela, eta faborito bezala hamar talde daudela uste du. Hala ere, argi dauka bere taldea goiko postuetan izango dela. Aurten talde gaztea duen arren, jokalari beteranoak ere badira, eta itxaropentsu dago denboraldi honetan taldeak egin dezakeenarekin. Ziur dago taldea goiko postuetan izango dela.

**ANTZUOLAKO FUTBOL TALDEA**

Andoni Azkargortaren esanetan aurtengo denboraldia ziklo berri baten hasiera izango da. Orain hiru urte talde sendoa prestatzen hasi ziren, eta talde horrek aurreko denboraldian eman zituen fruituak. Hasiera ona izan ez bazuten ere, denboraldi amaieran antzuolarrak mailaz igotzeko borrokan aritu ziren, eta igoera faserako sailkatu eta gero, azkenengo momentuan ezin izan zuten lehen erregionalera igotzeko txartela lortu. Aurten taldea asko aldatu da. Sei jokalarik taldea utzi dute, eta gazte mailako zazpi jokalarik goiko taldera igo dute. Honenbestez, Andoni Azkargortak argi dauka zein den aurtengo helburua: "Berriz ere talde sendo bat osatzea izango da aurtengo helburu nagusia".

XABI URZELAI

"Iñurrategirekin"



banoaren eskutik, Alberto Iñurrategiren eta bere lan-taldearen egitasmoan partaide izan zaitezen aukera eskeintzen dizugu. Bidaide nahi zaitugu, kultura, mendi, herri eta pertsona berriak ezagutzeko ahalegin honetan.

YOSEMITE ETA ESTATU BATUETAKO PARKE NAZIONALAK.
*Irailaren 15etik urriaren 5era.*

SAHARAKO ZEHARKALDIA. ARGELIA ETA NIGER.
*Azaroaren 3tik 27ra.*

SAHARAKO ZEHARKALDIA. BURKINA FASO, MALI, MAURITANIA ETA SENEGAL.
*Azaroaren 27tik abenduaren 23ra.*

ZELANDA BERRIA.
*2002ko urtarrilean.*

ANNAPURNAKO KANPAMENDU NAGUSIA.
*2002ko udaberrian.*

Honez gain beste aukera batzuk ditugu ibiltarientzako:

Everesteko kanpamendu nagusia. *Urrian.*
Annapurnako itzulia. *Azaroan.*
Bolivia eta Chile "Altiplanoko sumendiak". *Azaroan.*
Aconcaguako igoera. *Abenduan.*

*Informazioa eskatu, hemen gaitutzu:*

banoa

*Ledesma, 10 bis, 2.- 48001 BILBO*
*Tfnoa: 94 424 0011 - faxa: 94 423 2039*
*e-maila: bio@banoa.com*

EGITARAUA
Ikastaroa
2001/2002

Larunbat goizetan ere

- Mekanografia ordenagailuz
- Informatika
- Internet
- Microsoft project
- Autokad
- Programazio informatika
- Ingles multimedia
- Gestio kontablea
- Giza errekurtsoen administraketa
- Zerga gestioa
- Informatikako ekipaien mantentze eta konponketa
- Musika informatika (MIDI Sistema)
- Enpresariales eta ingenieritza
- Laguntza klaseak

Forcem eta Hobetuz eko ikastaroak %100 subentzionaturak aktiboan dauden lagileentzako

AKADEMIA
BASTIDA
INEM-ek HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA
Araba Etorbidea, 3 - 1ª • 20500 Arrasate-Mondragón
Tel.: 943 79 35 33 • Fax: 943 79 06 28
E-mail: bastida@bastida.es

# Txirrindularitza protagonista Gatzagako jaietan

## 23. Dorletako Ama saria korrituko da domekan

**Leintz Gatzagako jaiak direla eta, herriko Udalak, UDAko txirrindularitza sailak lagunduta, 23. Dorletako Ama txirrindularitza lasterketa antolatu du. Lasterketa honetan lehen eta bigarren urteko afizionatuek hartuko dute parte.**

Aurtengo Leintz Gatzagako jaietan txirrindularitza izango da protagonistetako bat. Domekan, goizeko bederatzietatik aurrera, Dorletako Amaren 23. lasterketa jokatuko da, eta bertan hainbat eta hainbat afizionatuk eskuratzeko dira saria eskuratzeko asmotan.

Lasterketa Gatzagan hasiko da, eta Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasate igaro eta gero, Bergaran buelta egin eta gorako bidea hartuko dute txirrindulariek. Gatzaraino iristean, berriz ere bide bera jarraiturik, oraingoan Arrasateraino jaitsiko dira, eta azken itzuli hori bi alditan egingo dute. Honenbestez, txirrindulariek Arlabango portua hiru aldiz igo beharko dute, eta antolatzaileen arabera probak hiru orduko luzapena izango du gutxi gorabehera.

Hala ere, txirrindularitza ez da Gatzagako jaietan izango den kirol eskaintza bakarra, besteak beste, pilota partida erakargarriak ere izango dira eta.

**MARKEL IRIZAR**

Txirrindulari oñatiarrak denboraldi hasieran arazoak izan bazituen ere, urte amaiera bikaina egiten ari da. Bigarren urtez 23 urtetik beherako Gipuzkoako erlojupeko lasterketa irabazteaz gain, Markel Irizarrek abuztuan beste bi lasterketa irabazi ditu, Aretxabaletakoa eta Abarzuzan izandakoa. Markel Irizarrek Olarra Erkoreka talde bizkaitarrean korritzen du, eta aurten hirugarren urtea du afizionatu mailan.

X.U.

Podiuma

# Jon Odriozola |TXIRRINDULARIA|

**Profesionaletan debutatu zuenetik bere lehen garaipena lortu zuen Jon Odriozolak (30 urte) abuztuan, Urkiolan. Uztailean Tour bikaina egin zuen, eta zapatuan Espainiako Itzuliaren irteeran izango da, Salamancan. Garai batean Marino Lejarretak egin ohi zuen antzera, denboraldi berean Giroa, Tourra eta Vuelta egingo du Odriozolak. Dagoeneko 30.000 kilometrotik gora egin ditu aurten, eta argi utzi du Banesto taldean gizon garrantzitsua dela.**



Jon Odriozolak Vueltan parte hartuko du, zapatutik aurrera. E.M.

**Zein izango da zure helburua Espainiako Itzulian?**

Taldeko zuzendarien arabera Espainiako Itzulira joateko moduan nago, eta ilusioarekin noa. Azken bi urteetan oso ondo ibili naiz Vueltan eta lehenbiziko astean etapa garaipen bat lortzen ahaleginduko naiz. Joan zen urteko ekitaldian etaparen bat irabazteko zorian egon nintzen behin baino gehiagotan. Ea aurten zorte handiagoa dudan. Iazko esperientzia baliagarria izango zaidala uste dut.

**Zelako itzulia izango da? Zeintzuk dira faboritoak?**

Azken ekitaldietan bezala ibilbidea gogorra da, eta aurten lehenbiziko astetik borroka handia egongo da, Lakuetako etapa eta erlojupeko beste bat daudelako. Faboritoak? Herasek irabazi zuen joan zen urtean, eta faborito nagusia bera da. Horrez gain, hor izango dira Botero, Sevilla eta ONCEko taldea: Abraham Olano, Joseba Beloki, Igor Gonzalez de Galdeano... Talde oso indartsua dauka ONCEk, eta taldeka faboritoak eurak dira. Gure taldeari dagokionez Mercado gaztea oso ondo ibili da Burgosko Itzulian, eta beste denok ikusi behar... Etaparen bat irabazten saiatuko gara, eta ea sailkapen on bat lortzen dugun.

> **"Urte askotan ibili naiz zerbait irabazteko gertu, eta Urkiolan garaipena lortzea, etxetik gertu, izugarri polita izan zen"**

> **"Giroa eta Tourra korritu ondoren, Vueltara ilusioarekin noa. Etapa garaipen bat lortzea da nire helburua"**

**Gaur ez da oso ohikoa denboraldi berean hiru itzuli handiak egitea.**

Azkenengo urte hauetan ez du inork egin. Gero eta zailagoa da hori egitea, eta denboraldiko helburuak asko planifikatzen dira. Nik agian itzuli horiek nahiko lasai egiten ditut: Girora beste batzuei laguntzera joan nintzen. Beste erritmo batean korrituta samurragoa egiten da.

**Profesionaletan ari zarenetik lehen garaipena lortu zenuen abuztuaren 12an, Urkiolan.**

Momentu polita izan zen, eta etxe ondoan irabaztean politagoa oraindik, Oñatiko lagun asko eta senitartekoak ere han zirelako. Urte askotan ibili naiz zerbait irabazteko gertu, eta azkenean garaipen bat lortzea izugarri polita izan zen.

**Espainiako Itzuliaren ostean Munduko Txapelketara joango zara?**

Beti mundialera joan naiz azken urteotan baina aurten beharbada denboraldia gehiegi luzatzea suposatuko luke. Oraindik ez dakit Lisboako mundialetan izango naizen.

**Pozik aurten egindakoarekin?**

Inportantea da zure lana ondo egitea. Nire kasuan behintzat, sailkapen orokorrari baino, etapa garaipenak lortzeari ematen diote garrantzi handiago taldean. Nire lana hori da, etapak irabazten saiatu, talde bururik ez badago behintzat. Aurtengo Tourrean aukerak izan nituen eta pena izan da, zortea falta izan zaidalako. Donostiako Klasikoan ere penaz geratu nintzen aurrean ez sartzearren; indarrez ondo nenbilen baina ezin izan nuen aurrekoekin helmugaratu.

**Aurten Banestorekin duzun kontratua bukatuko da.**

Banestorekin kontaktu nahiko inportantea egon da jadanik, eta gauzak ondo badoaz bertan geratzeko aukera daukat. Dena den, Vueltako lehen astean dena itxita utzi nahi dut.

EDU MENDIBIL

ATZOKO TXAPELDUNAK

## Sabas Igartua Futbolaria



Sabas Igartua bi denboraldiz aritu zen Eibar taldean.

**Hainbat futbol taldetan aritu zen**

**2. mailan jokatu zuen Eibar taldearekin**

**Mondragon taldean erretiratu zen, 29 urterekin**

Bergara, Eibar, Aloña Mendi, Mirandes eta Mondragon futbol taldeekin jokatu zuen Sabasek, 29 urterekin futbola utzi zuen arte. Bere esanetan urterik onenak Bergaran eman zituen, Andres Alzelai mahoneroen entrenatzailea zela: "oso talde ona geneukan 1950eko hamarkadaren amaieran, eta pare bat aldiz bigarren postuan sailkatu ginen 3. mailan. Ez dakit Bergarak orduko moduko talderik izan duen eta ez da *faroladia*. Gainera, jokalarion artean primerako giroa zegoen". Eibar taldearekin bigarren mailan jokatu zuen. Han, besteak beste, geroago Realera joandako Gastesi, Ormaetxea eta Arakistainekin batera aritu zen. Sabas erdilaria genuen: "sasoi hartan, entrenatzaileek, defentsan hiru jokalari, erdialdean bi eta aurrean bost jartzen zituzten baina taktikari ez zitzaion horrenbesteko garrantzirik ematen". Valladolid eta Logroñes taldeetara joateko aukera izan zuen, baina azkenean ez zen fitxaketa gauzatu. Bere burua definitzerakoan, umore puntu batez, zera diosku: "nik denei esaten diet jokalari ona nintzela. Hori bai, zikina eta gogorra ere banintzen, eta behin Azpeitiko futbol zelaitik Guardia Zibilak eskoltatuta irten behar izan nuen". Inguruko taldeen artean lehia handia omen zegoen: "telebistarik ez zegoen eta jende asko mugitzen zen herri batetik bestera". Normalean astean behin bakarrik entrenatzen ziren: "gaur askoz hobeto jokatuko genuke. Futbol zelaiak oso egoera txarrean zeuden eta baloiak ere pisutsuak ziren, korreadunak. *Txupinazo* gehien zeukanak ateratzen zituen faltak eta kornerrak".

Gaur egun erretiratuta dago, eta athleticzalea izan arren, gero eta gutxiago jarraitzen du futbola: "negozio hutsa bihurtu da eta gehiegizko garrantzia ematen zaio"/E.M.

*"Jokalari ona nintzen. Zikina eta gogorra ere bai. Azpeitiko futbol zelaitik Guardia Zibilak eskoltatuta irten behar izan nuen behin"*



Sabas Igartua • Bergara • 1935



## Nire Pronostikoa

RAUL LEIBA / Mondra taldeko entrenatzailea

Reala gogo handiz zelairatuko da, eta Alaves talde indartsua bada ere, Realak ez du nahiko bigarren derbia segidan galtzea. Osasunak Villarreal izango du aurrez aurre, eta nere ustez talde gorriak oso arerio zaila izango du. Athleticek denboraldia nahiko ondo hasi du, eta Mallorcak lehen neurketan ez zuen irudi ona eman, baina etxean jokatzen du beraz berdinketagatik egiten dut apustua. Estropadetan Oriok abantaila du, eta gainera faborito nagusiak dira.

**Oraingo asteko partiduak**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| A/ | Alaves | 0 | Reala | 1 |
| B/ | Villarreal | 2 | Osasuna | 0 |
| C/ | Athletic | 1 | Mallorca | 1 |
| D/ | Donostiako estropadak: | | Orio | |


EROSKi
Erosten jakin
ESKOLA-LIBURUAK
%25
Deskontuak %25eraino lehen eta bigarren mailako hezkuntzan. %5eko deskontua gainerako liburuetan (legeak onartzen duen gehiengoa)
berriro
etxera
eskolara
Eta orain, ONCE-EROSKI txirrindularitza taldearekin, OPARIEN ITZULIA dator
ONCE EROSKi
ONCE-EROSKI txirrindularitza taldearen 6 BIZIKLETA ofizialen zozketa
ONCE EROSKi
+
TXIRRINDULARITZAKO MUNDUKO TXAPELKETA ikusteko BIDAIA BATEN zozketa, bi lagunendako
+
EROSKETA GURDIEN zozketa egunero
+
Eskolarako KARPETAK opari, taldearen irudiarekin

# Goienka2a

Egubakoitza / 2001eko irailaren 7a

Kultura eta Aisialdia

Irailaren 7tik 14ra


# Zortzi ibilbide Debagoienean zehar




Badago turismoa egiteko aukera Debagoienetik alde egin barik. Edo asteburu bateko goiz edo arratsalde partea modu polit, eroso eta merkean betetzeko parada. Gure ibarrak baditu hamalka txoko ikusgarri, batzuetan ageri-agerian daudenak, bestetan bila ibili behar direnak, batez ere kaleko umeak bagara. Eta horiek aurkitzea, edo berraurkitzea, zeinek daki?, eskurago dugu orain. Hain gertu ditugun parajeak berriro, beste ikuspegi batekin, begiratzea dohainik eskaintzen zaigun luxua da. Debagoieneko Mankomunitateak prestatu dituen oinezko zortzi ibilbideek erraztuko digute plana, eta Debagoieneko bihotzeraino joateko oinezko bidea erakutsiko digute. /14

GOIO ARANA

Aisialdia | Debagoiena oinez ezagutzeko aukera

# Zortzi ibilbide Debagoienean zehar

BASERRI-AUZOETAN OINEZ EGITEKO TXANGOEN GAINEKO KANPAINA ABIARAZI DU MANKOMUNITATEAK

**Mundua geroago eta txikiagoa da, eta horrek beste puntan dauden lekuak eta herriak hurbiltzen dizkigu; baina, era berean, batzuetan gertukoaz ez gara behar bezala konturatzen. Bada, orain, gure ibarra berraurkitzeko parada dugu.**

Jeneralean, turismoa egiten dugunean edo herriz herri ibiltzen garenean, hiriguneei ematen diegu arreta handiena. Ez dugu guk esaten, turismo ekimenen arduradunek baizik. Ez da harritzekoa. Ematen du hiriguneetan bakarrik daudela ondare artistiko, kultural edo monumentalak. Bestalde, oso gutxitan izaten dugu mendi edo nekazari auzoetan bisitaldi "gidatua" egiteko aukera, ezta? Kontuak kontu, gure herrietako zati handi bat erdi ahaztuta geratzen da: nekazari auzuneak, hiriguneetatik urruntzen diren bideak, eta han, bisitariaren zain, dauden misterio eta lilura gozoak.

### Ondarea ezagutarazi

Egoera horri buelta emateko asmoz, Debagoieneko Mankomunitateak, bere Turismo Ekintzetarako Zentroaren bidez, *Debagoiena Oinez* izeneko kanpaina jarri du abian. Alde batetik, gure ibarraren balio turistikoa bultzatzeko egitasmoen osagarri izango da; baina ezin baliagarriagoa da baita debagoiendarrondako ere. "Baserri eta nekazari auzoetan badago historia, arte, kultura eta natura baliabide interesgarri asko, eta horiek ezagutzera emateko modu bat da proiektu hau", diosku Ana Erizek, Turismo Ekintzetarako Zentroko arduradunak.



Udalatik Besaiderako bidea da proposatutako ibilbideetariko bat.

Kanpainak Debagoieneko zortzi herrietan oinez egiteko beste hainbeste ibilbide proposatzen ditu, herri bakoitzean bana. Bideak diseinatzeko, herri guztiek euren proposamenak egin zituzten, eta Mankomunitateak Gipuzkoako Mendi Federazioaren laguntza izan zuen. Azkenean, zortzi ibilbide finkatu dituzte: Tumuluen xenda, Bergaran; Intxorta-Asentzio, Elgetan; Uzarraga-Galartza-Lizarraga-Irimoegi, Antzuolan; Udala-Besaide, Arrasaten; Oro-Larrino-Urkulu-Aozaratza, Aretxabaletan; Bolibar, Eskoriatzan; Araotz, Oñatin; eta Hiruerreketa, Gatzagan. Bakoitzak bere izaera du, baina guztiek nabarmentzen dute Debagoieneko herrietako paisaien, baserrien, naturaren eta kulturaren balioa eta aberastasuna. Deba erreka non sortzen den ikusi gura duzula? Edo Vasco-Navarro trena nondik igarotzen zen? Gurago zenuke bailarako ermita politenetariko batzuk miresteа? Zer irudituko litzaizuke aurrehistoriako ondareak bisitatzea? Horiek dira proposatutako ibilbideek eskaintzen dizkiguten aukera batzuk. Ibilbide bakoitzeko, argibidez betetako eskuorri bat dago. Hor, ibilbidea zelakoa den, zenbat irauten duen eta zelan jarraitu azaltzeaz gain, bidean aurkituko ditugun leku edo gauza interesgarrienen gaineko azalpenak daude. Sei eta hamasei kilometro artean dituzte errutek, bi eta lau ordu artean egiteko.

### Ibilbide berriak

Debagoiena Oinez azken Feritur turismo azokan aurkeztu zen, Bergaran, maiatzean. Oraindik goiz da emaitza zehatzik jakiteko. Dena dela, "jendeak interesa agertu du. Orain arteko erantzuna ona izan da. Udan, adibidez, askok eskatu dute ibilbideen inguruko informazioa", esaten du Ana Erizek.

Proiektu gaztea da, hortaz; gainera, Debagoienean oinezko bideak sustatzeko ekimen bat antolatzen den lehenengo aldia da, baina ez azkenengoa; izan ere, turismo arduradunak ari dira honez gero ibilbide berriak antolatzen. Orain artekoen gaineko informazioa Bergarako edo Oñatiko turismo bulegoetan aurkituko dugu.

Lehendik ere bazeuden Debagoiena ezagutzera gonbidatzen gintuzten turismo kanpainak. Turismoaren kultura geroago eta errotuagoa dago gurean ere, eta Debagoiena Oinez kanpainak hori berretsi baino ez du egiten. gainera, gure eskualdeak beste turismo proiektu orokorrago batzuetan ere parte hartzen ari da. Hor dago, adibidez, Gipuzkoa Zein Berdea egitasmoa, lurraldeko beste lau eskualderekin batera; edo Urola aldeko eskualdeekin batera egin den Hiru Tenpluen Ibilbidea delakoa. Horretan, Arantzazu jomuga hartuta, bailara osoko baliabide turistikoak ere nabarmentzen dira.

LEIRE KORTABARRIA

ARETXABALETA

## Oro-Larrino-Urkulu urtegia-Aozaratza

Ibilaldi hau sei kilometro luze da -sortako laburrenaeta bi orduan egin daiteke. Ibilbidearen prestatzaileek Aretxabaletako Azbe lantegiaren ondotik abiatzea proposatzen dute, eta Arrasaterantz doan errepidea jarraitzea. Oro eta Larrino auzoetatik pasatu ondoren, Urkulu urtegiaren ingurune paregabeekin gozatzeko aukera izango du ibiltariak. Segidan, Aozaratzako elizatera abia gaitezke, eta Otala-zelain bukatzen da bidea. Tartean, hainbat gune interesgarri bisita ditzakegu: Iturralde baserria, San Kristobal eta San Juan parrokiak, Otalora dorretxea edo Otala-zelaiko hariztia.

ARRASATE

## Udalatik Besaideraino

Udala eta Besaide bi bidek elkartzen dituzte ibilbide honetan, eta Udalatxen magaleko artadi aberatsa ikusiko dugu. Paseo labur samarra da, 6,4 kilometrokoa, eta bi ordu eta erdian egin dezakegu. Euskal Autonomia Erkidegoaren bihotz-bihotzean daude ikusiko ditugun lekuak. Besaideko kanpaia dagoen gune horretan, hildako mendizaleen oroimenez eraikia. Irailеko hirugarren domekan Besaide eguna ospatzen da. Ibilbidean, ikusteko leku interesgarri ugari dago: San Esteban eliza, Neberako eta Besaideko iturriak, 500 urte inguruko putzua, karobiak…

ESKORIATZA

## Bolibarko elizatean zehar

Nekazari inguruneak, baso ederrak eta leku historikoak bisitatzeko aukera izango dugu. Bolibarko elizatea txango hasieran ikusiko dugu. Aitzorrotz mendiaren magalean dago, eta berori miresteaz gain, Bolibar haranaren panorama zoragarria eskainiko digu. Eraña auzoan, Axtrokiko haitzak ikusi eta Erdi Aroko sarkofagoak eta Puntiagako tumulua mirestuko ditugu. Paisaia eder gehiago Lete auzoan aurkituko ditugu: Udalatx, Anboto, Izpizte, Tellamendi eta beste hainbat tontor eta mendi. Eskoriatzak berak ere leku interesgarriak ditu: etxe eta plaza bitxiak, Errosario Santuko Ospitalea…

OÑATI

## Araotz: uraren ibilbidea

Baserri giroa, ura, harria, natura eta historia uztartzen ditu Lope Agirre mitikoaren sorlekua izan zen auzo oñatiarreko ibilbide honek. Araotzeko lau auzune zeharkatuko ditugu. Erlijio eraikinei dagokienez, San Migel parrokia, Ugastegika Santa Kruz ermita, kanposantua edo burdinezko guruтze bat ikusi ahal izango ditugu. Bestelako monumentuak ere badaude, naturak zein gizakiak eginda: Orkatzategiko kobazuloak, eremu megalitikoa, tumuluak edo Araotz eta Kurtzebarriko bista ederrak; eta, jakina, ura: harraskak, urtegiak, ur-jauziak, ur-putzuak, eta abar.

LEINTZ-GATZAGA

## Hiruerreketa ezagutzeko aukera

Paisaiaren dotorezia da ibilbide honen eskaintza indartsuena. Dorletako santutegitik hasita, zortzi kilometroko bidea izango dugu aurrez aurre. Ingurune horietan sasoi bateko Vasco-Navarroren trenbidea jarraitu ahal izango dugu. Burdinazko bidea utzi eta lurrezkoa hartuz gero, pinu, haritz eta pago artean amaituko dugu, Deba ibaiaren jaiolekuan, hain zuzen ere. Segidan etorriko da baserrien txanda: Olaun auzoko Dominaga, San Juanzar eta Nordebisi etxaldeak. Erdi Aroan, ur gazien inguruan sortutako ospe eta aberastasunaren irudia ekarriko digu ibilbideak.

ELGETA

## Intxortatik Asentziora bidean

Liluraturik utziko gaituzte ibilbide honetan ikus daitezkeen paisaiak; izan ere, Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat mendi ikuskatzen dira. Pagadiak ere aipatzekoak dira. Elgetatik irten eta Arrasatera doan bidea jarraituz, Intxorta tontorrera helduko gara berehala. Hango pinadi, pagadi eta erreka ondoan atseden hartu ondoren, beste tontor batera joko dugu, Gazteluaitzera, hain justu ere. Han errepidea hartu eta Asentzio ermitara joango gara. Uste da 1500. urtean dagoeneko bazegoela ermita hori. Handik paisaia harrigarria ikusten da: Udalatx, Elgeta…

Argitalpenak | **'Arantzazu, Euskal santutegi bat XX. mendean'** liburua

# Arantzazuko testigantzaren bilduma

**Arantzazuko santutegiaren bosgarren mendeurreneko ospakizunek ez dute atsedenik. Pasa den egubakoitzean bertan, *Arantzazu: Euskal santutegi bat XX. mendean* izeneko liburua aurkeztu zuten Donostiako Koldo Mitxelenan. Lana Joseba Intxausti historiagileak zuzendu du, baina beste 32 lankide izan ditu.**




Egileetako batzuk Koldo Mitxelenan, liburua aurkeztu zuten eguneko irudi batean. ANDONI CANELLADA/GARA

Duela bi urte jaio zen liburua egiteko ideia. "Arantzazuko santutegiaren 500. mendeurreneko ospakizunak zetozela ikusi eta horrek oroitzapen garrantzitsua behar zuela adostu genuen Arantzazu inguruan genbiltzan edo iraganean ibilitako lagun batzuek. 1950ean argitaratutako *Historia de la virgen y del santuario de Aranzazu* liburua abiapuntu hartu genuen. Liburu horrek kontakizun eta gogoetari utzi zion une historikotik aurrera ekin genion idazteari". Arantzazuko santutegiak XX. mendean izan duen ibilbidea landu barik zegoen, eta horixe izan da, hain zuzen ere, liburuaren egileek izan duten helburu nagusia. Hortaz, kontakizunean, gutxi gorabehera, 150 urte inguru atzera egin dute eta mende bat baino haratago jorratu dute.

Joseba Intxaustik berak eskema orokorra prestatu zuen lanari hasiera eman ahal izateko. Paulo Agirrebaltzategirekin eta beste batzuekin batera egin beharrekoa aztertu eta lankideak aukeratu zituzten abian jarri ahal izateko. Izan ere, 33 lankide horietatik, hamar izan ezik gainerakoak fraideak dira, eta hamar horien artean badira frantziskotar izan zirenak ere. "Frantziskotarrek eurek idaztea gura genuen, eurek dakite-eta santutegiak bizi izan duena. Euren testigantza beharrezkoa zen", azaldu zigun Intxaustik.

### Santutegia ezagutzeko modu erraza

Egin duten lanaren helburu nagusiena liburuaren beraren bitartez, Arantzazun inoiz izan edo ez, berau barrutik ondo ezagutzea zen. Liburua egiteko unean beste gauza bat azpimarratu gura izan dute: lan irakurterraza bilakatu nahi izana, hain justu ere. Horretarako, idazteko orduan modu errazak erabiltzeaz gain, 300 argazki eta irudi grafiko ugari ezarri dituzte. Are gehiago, zenbait testu kronika estiloan idatzita daude. "Egia esatearren, liburu honetako zenbait testu prestatzen ari garen beste liburu mardulago baten laburpentxoak edo ataltxoak dira, askoz errazago irakurriko direnak, gainera".

### Arantzazuren esparruak

Laurehun eta berrogeita hamar orrialde dituen liburu hau bost atal nagusitan banatuta dago: *Historia eta inguru geografikoa*; *Arantzazu bere baitandik*; *Arantzazutik Euskal Herrira*, *Euskal herritik Arantzazura*; *Argitu ote du*; eta *Etorkizuneko gogoetak*. Liburuaren baitan Arantzazuren esparru ugari jorratu dituzte: "Fraideen arteko harremanak izugarri aldatu dira gizartearen bilakaeraren eraginez; santutegiaren ekonomia aztertu dugu baita ere; inor harrituko bada ere, otoitzak berak ere aldaketa garrantzitsuak izan ditu. Era berean, frantziskotarren pentsaera, erromesen garrantzia, arkitektonikoki santutegiak eta han erabilitako estilo bereziek duten garrantzia, eta, nola ez, santutegiaren ildo poetiko eta musikala –horra hor, esaterako, Salbatore Mitxelenak edo Bitoriano Gandiagak utzitako ezinbesteko ondarea–. Arantzazuk kulturgune gisa ere garrantzi izugarria du eta ez dugu esparru hori ahaztu".

Laster salgai jarriko dute liburua. Euskal Herri osoko liburu dendetan eta Arantzazuko santutegian bertan izango da eskuragai, 5.000 pezetaren truke.

IKER BARANDIARAN

## Nire aukera

### David Azurza
**Lausardi koru sinfonikoko zuzendaria**



Nire aukera tarterako zinemagintzako klasiko bat gomendatu gura dut duen interesagatik: Ernst Lubitsch zuzendariaren *Ser o no ser*, orain dela gutxi berriro ikusi dudan filma. Ez da gaur-gaurkoa eta ikusi gura duenak aurkitzen saiatu beharko du, izan ere, 1942an filmatutakoa da-eta. Umorez beteta dagoen filma duzue, baina, era berean, oso mamitsua da. Nazismoaren satira eta kritika egin zuen Lubitschek. Gainera, protagonistak antzerki talde bateko kideak dira, eta antzerkiko bizitza eta "bizitzaren antzerkia" kontrajartzen dira. Oso gomendagarria iruditzen zait eta kontuan hartzeko titulua dela deritzot: *To be or not to be* interesgarria oso.

**'SER O NO SER'**
**Ernest Lubitsch**




LEIRE KORTABARRIA




IRAILERAKO UTZI BADUZU ERE, APARTEKO BIDAIA ESKAINTZEN DIZUGU!

IRAILA

| | | | |
|---|---|---|---|
| **TENERIFE** | | **8 EGUN** | |
| Masaru Apartamentuak 3G | O.G. | 65.000 Pta. | |
| Parque Atlanta Apartahotela 3G | M.E. | 65.500 Pta. | |
| Atalaya Hotela **** | M.E. | 79.000 Pta. | |
| **LANZAROTE** | | **8 EGUN** | |
| Bitácora Apartamentuak 2G | O.B. | 65.800 Pta. | |
| Lancelot Hotela **** | M.E. | 79.800 Pta. | |
| Barceló Suites Hotela **** | M.E. | 86.800 Pta. | |
| **PALMA MALLORCAKOA** | | **8 EGUN** | |
| Sol Pinos Hotela ** | M.E. | 54.100 Pta. | |
| Tropical Park Hotela *** | M.E. | 67.400 Pta. | |
| Olimpo Hotela *** | M.E. | 68.900 Pta. | |
| **PRAGA** | | **8 EGUN** | |
| Top Praha Hotela *** | O.G. | 68.300 Pta. | |
| Park Hotel Hotela **** | O.G. | 103.600 Pta. | |
| **CIUDADES IMPERIALES** | | **8 EGUN** | |
| Hotelak*** | O.G. | 92.000 Pta. | |

| | | |
|---|---|---|
| **CANCUN** | | **9 EGUN** |
| Margaritas Hotela *** | O.B | 99.900 Pta. |
| C. Village Playacar Hotela **** | G.B | 137.800 Pta. |
| **PUNTA CANA** | | **9 EGUN** |
| Hodelpa Caribe Hotela ***** | G.B | 125.900 Pta. |
| Fiesta Bavaro Hotela ***** | G.B | 145.900 Pta. |
| **PUERTO PLATA** | | **9 EGUN** |
| Fun Royale Hotela *** | G.B | 111.700 Pta. |
| Luperon B. Resort Hotela **** | G.B | 115.900 Pta. |

Dolaren gehigarria eta tasak ez dira barnean sartzen

HALCON VIAJES - BIDAIAK
CICL 37-03
Norekin ibiliko zara hobeto!

700 bulego Espainia eta Portugalen - informazioa eta erreserbak: 902 300 600 - www.halcon-viajes.es

# Iraila: 7-14

**Edu Mendibil** / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12.00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **erredakzioa@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## Antzerkia

**ELORRIO**

> *Boni y la familia Ramírez* antzezlana domekan, hilak 9, plazan, 19:30ean.

## Musika

**ARRASATE**

> **Kaiet** eta **Alain** disko jartzaileak egubakoitzean, hilak 7, Etxoste tabernan, 23:00etan.

> **Dotakon jaialdia** datorren zapatuan, hilak 15, Monterronen, 18:00etatik aurrera: kontzertuak, disko jartzaileak, antzerkia, performanceak, tatuajeak, proiekzioak, arte erakusketak eta sustantzia dastaketa. Sarrerak 1.500 pezetan salgai.

## Erakusketak

**BERGARA**

> **Margo lehiaketako erakusketa** irailaren 9tik 16ra Beart elkarteko egoitzan (Bolu kalea 49).

> **Jose Antonio Laskurainen** margoak La Caixako bulegoan irailaren bukaerara arte, lanorduetan ikusgai.

> **Marilu Untzurruntzagaren** olio erakusketa Nahikari tabernan.

**EIBAR**

> **Juan Jose Altuna Akizuren** margo erakusketa Arrate kultura elkartean (Zuloagatarren, 3) irailaren 16ra arte.

**DONOSTIA**

> **Ramon Arantzabalen** margo erakusketa Kutxako erakusketa aretoan (Boulevard, 1) irailaren 30era arte. Astelehenetik zapatura 18:00etatik 21:00etara, eta domeka eta jaieguneten 11:30etik 13:30era eta 17:00etatik 21:00etara.

## Lehiaketak

**BERGARA**

> **Ageriko XXVIII. pintura lehiaketa** domekan, irailak 9. Nahi duen edonork parte har dezake. Gaia eta teknika libreak izango dira eta lana udalerriko edozein lekutan egin ahal izango da. Lanen zigiladura Beart elkartearen egoitzan (Bolu kalea 49) egingo da, 09:00etatik 11:00etara; eta lanak 13:00etatik 14:00etara aurkeztuko dira leku berean. Irabazleak 80.000 pezeta eta trofeoa eskuratuko ditu eta beste hainbat sari ere izango dira. Era berean, 23 urtetik beherako onenendako sariak izango dira. Argibide gehiago 943 77 91 58 zenbakian.

> **Kartel lehiaketa.** Antzuolako eta Bergarako erretiratuen elkarteek antolatutako V. Kultur Hamabostaldiko programaren azala aukeratzeko lehiaketa. V. Hamabostaldi Kulturalaren gaia honako hau izango da: *Nagusien partaidetza gaurko eta biharko gizartean.* Edozeinek parte hartu ahal izango du. Edozein teknika onartuko da: collagea, pintura, argazkia, prozedura informatikoak, eta abar. Lanen neurria 40x60 cm-koa izango da eta euskarri zurrunean aurkeztu beharko dira. Lanaren goialdean honako testua agertu beharko da: *Antzuola eta Bergarako jubilatuen V. Kultur Hamabostaldia. 2001ko urria.* Azpian, berriz, beste testu hau jarri beharko da: *Nagusien partaidetza.* Irabazleak 100.000 pezetako saria eskuratuko du. Era berean, 50.000 pezetako saria emango diote San Joxepe elkarteko bazkideek aurkeztutako lan onenari. Lanak irailaren 11ra bitartean aurkeztu ahal izango dira San Joxepe elkartean.

**EIBAR**

> **Indalecio Ojanguren XIV. Argazki Lehiaketa.** Nahi duten argazkizale guztiek parte har dezakete. Gaia librea izango da eta gehienez hiru argazki zuri-beltzean eta beste hiru koloretan aurkeztu ahal izango dira. Koloretako zein zuri-beltzeko argazki bildumarik onenak 80.000 pezetako saria jasoko du eta argazki solte onenendako ere sariak izango dira. Lanak aurkezteko epea urriaren 31n bukatuko da, eta ondoko helbidera bidali beharko dira: Indalecio Ojanguren XIV. Argazki Lehiaketa. Portalea. Eibarko Udala. Bista Eder 10. 20600 Eibar. Argibide gehiago 943 20 68 45 telefono zenbakian.

**BILBO**

> **Gabriel Aresti XIX. Ipuin Lehiaketa.** Nazio guztietako idazleek parte har dezakete, gai libreko ipuin originalak, argitaratu gabeak eta lehenago beste lehiaketa batean sarituak izan ez direnak aurkeztuta. Ipuinak gehienez DIN A-4 motako 15 orrikoak izango dira, orrialde bakarretik eta tarte bikoitzean idatzita. Ipuinak euskaraz zein gaztelaniaz idatzi ahal izango dira eta beste hizkuntzetatik egindako itzulpenak ez dira onartuko. 550.000 pezeta gordineko sari bana eta 225.000 pezeta gordineko bina azkezit egongo dira euskarazko eta gaztelaniazko modalitateetan. Lanak helbide honetan aurkeztuko dira: Bilboko Udala. Kultura eta Turismo Saila. Gabriel Aresti XIX. Ipuin Lehiaketa. Ernesto Erkoreka plaza z/g. 48007 Bilbo. Ipuinak aurkezteko epea urriaren 31n amaituko da.

**ZUMAIA**

> **Julene Azpeitia XIV. Ipuin Lehiaketa.** Gaia librea izango da eta euskarazko idazlanek gutxienez 12 folio eduki beharko dituzte, idazmakinaz idatzita eta bi espaziorekin. Irabazleak 325.000 pezeta eskuratuko ditu eta bigarren saria 125.000 pezetakoa izango da. Lanak aurkezteko epea irailaren 30ean bukatuko da. Argibideak: 943 86 50 25.

## Ikastaroak

**ARRASATE**

> **Gorputz lan bioenergetiko taldea.** Eguaztenero, 18:30ean. Arrasate Yoga Elkarteak antolatuta. Argibideak 616 96 57 95 telefono zenbakian.

**ARETXABALETA**

> **Garapen pertsonala taldea.** Hilean bi aldiz batuko dira, zapatuetan, 10:00etatik 14:00etara. Informazioa eta argibideak 616 96 57 95 telefono zenbakian.

## Deiak

**ARRASATE**

> **Berbaldia:** Amaia Arrizabalagak Kolonbian egin den karabana internazionalistaren gainean berbaldia egingo du eguenean, irailak 13, Monterronen, 19:00etan.

> **HHI-EPA** ikastetxeko matrikulazio kanpaina irailaren 14ra arte izango da zabalik. Argibideak 943 77 11 72 zenbakian.

**BERGARA**

> **Liburu aurkezpena.** Anaje Narbaizak egindako *Zura: arotzak eta etxegileak* liburuaren aurkezpena datorren egubakoitzean, hilak 14, Udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:00etan.

> **San Joxepe** erretiratuen elkarteak irailaren 20an Larrunera joateko irteera antolatu du. Izena ematea (5.600 pezeta) irailaren 11ra arte zabalik elkartean bertan, 14:00etatik 21:00etara.

**HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA**
Jardiñeta, 3 bis • EIBAR

EIBARKO H.E.O.k matrikula ofizial epea iraileko 13tik aurrera izango dela adierazten du.

Informazio gehiagorako 943 20 06 18 telefonoari
www.euskalnet.net/eoieibar

OHARRA

- **2. edo 3.** mailara sartzeko: autokokapenerako 1. eta 2. testak irailaren 3tik 21era Eskolako Idazkaritzan hartzeko aukera izango du hala nahi duenak.
- **4. edo 5.** mailara sartzeko mailakatze probak honako hauek izango dira:
  - autokokapenerako 3. eta 4. testak irailaren 3tik 19ra Eskolako idazkaritzan jaso ahal izango dira.
  - proba idatzia eta ahozkoa.

Informazio gehiago:
Tfnoa: 943 20 06 48
www.euskalnet.net/eoieibar



JAIAK

### ANDRAMAIXAK GATZAGAN

Leintz Gatzagako jaiak ospatuko dituzte astebukaeran. Egubakoitzean, hilak 7, Larrañaga eta Epelde taldearekin dantzaldia izango da 23:00etan. Zapatuan, 11:30ean, Otxandiokoei ongietorria egingo diete eta 12:00etan meza izango da. Jarraian, Lizaso eta Egaña bertsotan arituko dira Dorletan. Eguerdiko 14:30ean herri bazkaria egingo dute eta arratsaldean ume jolasak eta bolo txapelketa izango dira. Gauean, berriz, Fundiziñue eta Marrubi band taldeen rock kontzertua. Domekan, meza 12:30ean, mus txapelketa 16:00etan, pilota partiduak 17:00etan eta 19:00etan Araiako Bandaren saioa. Bukatzeko, Kaixo taldearekin dantzaldia 22:00etan.

## JAIOTAKOAK

**Unai Bermudez Etxebarrieta**
Aretxabaletan, abuztuaren 19an.

**Asier Merino Altuna**
Aretxabaletan, abuztuaren 19an.

**Olatz Balzategi Leturiaga**
Oñatin, abuztuaren 20an.

**Sara Herrero Sanchez**
Oñatin, abuztuaren 21ean.

**Alex Agiriano Umerez**
Eskoriatzan, abuztuaren 21ean.

**Elene Zuloaga Elkoroiribe**
Oñatin, abuztuaren 23an.

**Aimar Zuloaga Elkoroiribe**
Oñatin, abuztuaren 23an.

**Aritz Zugasti Zufiria**
Eskoriatzan, abuztuaren 25ean.

**Mikel Arraeta Iñurrategi**
Eskoriatzan, abuztuaren 26an.

**Ainhoa Alonso Antelo**
Aretxabaletan, abuztuaren 28an.

**Beñat Biteri Lugarizaristi**
Eskoriatzan, abuztuaren 28an.

**Markel Salgado Alvarez**
Bergaran, abuztuaren 29an.

**Mikel Larrion Moro**
Bergaran, abuztuaren 29an.

## HILDAKOAK

**Candida Larrañaga Larrañaga**
Oñatin, abuztuaren 20an,
83 urte zituela.

**María Aranburuzabala Azkoaga**
Eskoriatzan, abuztuaren 21ean,
98 urte zituela.

**Maria Argarate Alberdi**
Bergaran, abuztuaren 22an,
83 urte zituela.

**Concepción Balantzategi Zubizarreta**
Arrasaten, abuztuaren 23an,
86 urte zituela.

**Luis Barandiaran Uribarren**
Arrasaten, abuztuaren 23an,
63 urte zituela.

**Rosario Egea Otxoa de Angiozar**
Elgetan, abuztuaren 24an,
83 urte zituela.

**Luisa Galdos Oñatibia**
Arrasaten, abuztuaren 24an,
94 urte zituela.

**Sabina Letamendi Agirre**
Oñatin, abuztuaren 27an,
85 urte zituela.

**José Luis Fernández de Arroiabe Arana**
Arrasaten, abuztuaren 27an,
44 urte zituela.

**Felix Unzurrunzaga Lizaur**
Oñatin, abuztuaren 29an,
85 urte zituela.

**Jose Vazquez Sanchez**
Oñatin, abuztuaren 30ean,
83 urte zituela.

**José Martín Fradejas**
Arrasaten, abuztuaren 30ean,
86 urte zituela.

**Pedro Retes Ibáñez**
Arrasaten, irailaren 1ean,
48 urte zituela.

**Dolores Mujika Gorrotxategi**
Bergaran, irailaren 3an,
82 urte zituela.

**Eugenio Martín Domínguez**
Arrasaten, irailaren 4an,
70 urte zituela.

## EZKONDUAK

**Genaro Menor Martinez** eta **Eneida Ezenarro Arejola-leibar**, abuztuaren 25an, Bergaran.

**Claudio Cesar Fernandez Calleja** eta **Miren Estibaliz Zubiaur Etxeberri**, irailaren 3an, Gatzagan.



**Antxoni Balentziaga** eta **Joxe Iñazio Irureta** bergararrek urrezko ezteiak ospatuko dituzte, bihar, zapatua. Arantzazun meza izango dute, eta ondoren Getariara joango dira bazkaltzera senitartekoekin. Zorionak, bikote, eta urte askotarako!



**Resu Rejado Najera** eta **Txomin Azpitarte Izagirre** 1976ko uztailaren 25ean ezkondu ziren Eskoriatzan. Zorionak familiaren partez!

### ESKER ONA

## Eulalia Muñoz Herran



**Pancorbon** hil zen
2001eko abuztuaren 15ean,
56 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*

### ESKER ONA

## Pedro Luis Aranguren Bideluze



**Bergaran** hil zen
2001eko abuztuaren 6an,
55 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*

### ESKER ONA

## Juan Ezkurra Murua

**Arrasaten** hil zen
2001eko abuztuaren 29an.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko emazte eta sendikoen izenean.*

### ESKER ONA

## Justa Zubia Eguren



**Bergaran** hil zen
2001eko uztailaren 21an,
80 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*

### ESKER ONA

## Maria Asuncion Loidi Igarza



**Bergaran** hil zen
2001eko abuztuaren 11n,
81 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*

### ESKER ONA

## Karmelo Iturrospe Sasigain



**Bergaran** hil zen
2001eko-abuztuaren 3an,
50 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*

### URTEURRENA

## Angeles Eguren Agirrezabal



Lehen urteurreneko meza
domekan, irailaren 9an,
13:00ean,
**Bergara**ko Santa Marinan.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### URTEURRENA

## Mari Paz Alberdi Arribas



Lehen urteurreneko meza
domekan, irailaren 9an,
13:00ean,
**Bergara**ko Santa Marinan.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### URTEURRENA

## Maria Luisa Barrutia Mardaras



Lehen urteurreneko meza
domekan, irailaren 9an,
13:00ean,
**Bergara**ko Santa Marinan.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### URTEURRENA

## Jesus Letamendi Arrazola



Urteurreneko meza
zapatuan, irailaren 8an,
19:00ean,
**Oñati**ko Parrokian.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*



# Hitz gezidunak

Luma




# Bila-bila 7





# Umore giroan

David Peñalver

**MAIXUAK ESKOLAN**

-Imanol! Zenbat huts jaukak milloiak?

-Sei huts.

-Ondo dago, eta milloi erdixak?

-Hiru.

**BI LAGUN**

-Jode, andria etxetik juan zanetik ezin juat lorik egin!

-Ze ba? Faltan igartzen dok ala?

-Ke ba! Ohia eruan juan!

**ARMAIXUENA**

Tipo bat armaixua bizkarrian hartuta joiak eruan ezinka, eta esan jotsak lagun batek:

-Hi, nora hoia hori bizkarrian hartuta?

-Laugarren pixura, baiña ezin juat bakarrik igo!

-Ba esaixok anaiari laguntzeko.

-Armaixo barruan joiak pertxak eruaten!

**UGAZABAK LANGILLIARI**

-Ezin duat soldatia igo.

-Ba sarrixago emoten badostak, ni konforme.

**BI LAPUR**

-Bi lapur kalian zihar eta bitxi denda baten aurretik pasatzerakuan esan dotsa batek bestiari:

-Hi, zenbat balioko jok horrek pultseriorrek?

-Ba hiru edo lau urte kartzelan.

# Ezetz asmatu!

Estepan Plazaola



## Zein herri zen handiago?

1844an, Oñatiz eta Bergaraz gain, zein beste herri zen Arrasate baino handiagoa?

- Aretxabaleta
- Aramaio
- Elgeta

**Erantzun zuzena:** Elgeta. Artean Angiozar eta Ubera Elgetakoak ziren eta Elgetak 2.169 bizilagun zituen; Arrasatek, berriz, 2.114. (Iturria: Madozen hiztegia).

## Soluzioak





# Horoskopoa

Gipuzkoako Astrologi Elkartea

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Indarrez gainezka sentitu arren, ez galdu alferrik energia, lanez lepo ibiliko baitzara, eta horretarako beharrezkoa gordetzen ez baduzu estresa eta urdaileko mina izango dituzu. Familiak erabaki garrantzitsuekin lagun zaitzake.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Taldeko lana atsegin ez duzun arren, onartu beharko duzu emaitza onak lortzekotan. Azaldu zeurea eta entzun besteena, horrek arrakastarako bidea erraztuko baitizu.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Familia barruko aldaketa mingarriek egoera latza eragin dute zure bizitzan. Baztertu eta isildu beharrean, ekin familian zoriontasuna lortzeko.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Familia ondo ibili arren, ez ezazu nahastu beharrarekin. Laguntza behar baduzu kontratatu kanpoko baten bat, utzi senideak alde batera.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Ondo dago gozatu nahi izatea, baina ez baztertu zure ardurak, lanean arazoak izan ditzakezu eta. Denerako astia izango duzu, ez aztoratu.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Sentikorregi zabiltza, eta horren ondorioz larrituta zaude lana eta familiagatik. Sailkatu beharra lehentasunen arabera eta ekiozu pixkanaka, nekatu barik.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Beharrean aldaketa onuragarriak. Ez itzazu alferrik galdu, diru aldetik laguntza izateaz gain, zeure buruarenganako estimazioa indartuko baitute.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Uzta biltzeko garaia da. Hala ere, segi orain arte bezain langile. Familiak zure beharra igarriko du, baina ulertu beharko dute bolada on hau aprobetxatu behar duzula.

**SAGITTARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Gehiegizko beharra dela eta aztoratuta zabiltza, baina zeu zara errudun bakarra, guztia bakarrik egin nahi izateagatik. Eskatu laguntza eta hobeto ibiliko zara.

**CAPRICORNUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Ez geratu gora begira eta ekiozu. Egitasmoa prest dago, aurre egin zalantzei eta jarri martxan, horrela bakarrik lortuko dituzu eta hobekuntzak lanean.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Lasaitu, hausnartu eta aztertu ea orain arte lortutakoa gura zenuena den. Egin itzau aldaketa batzuk hobekuntzak lortzeko.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Ez jarri arretarik besteek diotenean eta ez pentsatu eurek hobe egingo dutela. Astindu nagiak eta ekin lanari zure bidetik, horrela konturatuko baitzara zenbaterainokoa den zure gaitasuna.

Gipuzkoako Astrologi Elkartea

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko irailaren 7a

# Goiena Telebistaren etorkizunerako apustua: digitalizazioa

GOITBk TRESNERIA BERRIA ESKURATU ETA LAN EGITEKO MODU BERRIA IZANGO DU URRITIK AURRERA

**Goiena Telebista bizi ditugun garaietara egokituz doa pausoz pauso. Orain arte urtez urte egin dituen berritasun guztiez gain, aurtengo uztail, abuztu eta irail artean erronka garrantzitsua hasi du. Batez ere, makineria berria jartzen eta egokitzen aritu dira telebistako langile eta teknikariak. Prozedura berri horren bitartez, plataforma digitala ezarri ahal izango dute Goiena Telebistan, eta egokitzapen horri ahal den lasterren bukaera eman ahal izateko buru-belarri dabiltza azken egunotan.**

Goiena Telebistak iraganean lau fase nagusi zehaztu zituen egitamu nagusian. Batetik, edizio digital bat eta unitate mugikor txiki bat abian jartzea. Gerora, 2001eko urtarrilean, bigarren edizio digitala eta bi kamera digital eskuratu zituzten. Hirugarrena, pausorik garestiena, uztailetik hona egiten ari direna da. Fase garrantzitsu honetan makineria berri ugari eskuratu dute: editatze gela digital bi, jarraipen eta grabazio automatizatua, eta logo sortzailea, besteak beste. Horrez gain, tresneriaren arabera hainbat egokitzapen egin behar izan dituzte egoitzan bertan, jakina. Laugarren fasea oraindik aztertzen dabiltza eta ez dakite ziur hasiera noiz emango dioten. Azken fase horretan kamera digital berriak eskuratuko dituzte, eta Bergara, Aretxabaleta eta Oñati arteko barne loturak zein dekorotu birtualak egitea aztertuko dute.

Dena dela, ez da komeni ondorengo faseari buruz askorik mintzatzea, une honetan hirugarren faseari bukaera ematen dabiltzaeta. Horretarako, Goiena Telebistan lan egiteko modu desberdinak jorratu behar dituztenez, teknikarien prestakuntza landu behar dute, tresneria berria prestatu, seinalearen inguruko derrigorrezko frogak egin... Azken batean, lan-sistemara egokitu beharko dituzte bai tresneria baita teknikariak ere.







Abuztuan egin behar izan dituzte aldaketak.

LEIRE KORTABARRIA

### Programazio berria

GOITBko zuzendari Oihane Agirrek aurreratu digunez, plataforma digitala ezartzeko lan erraldoiak datorren hilerako, urrirako, bukatuta egongo dira, programazio berriarekin batera estreinatzeko moduan. Horren harira, urritik aurrera programazioan aldaketa nabariak izango direla aipatu zigun. Hain zuzen ere, duela gutxi Goiena Telebistaren ikusleen gainean azterketa mardula egin berri dute eta saio horren emaitzak jakin ondoren, telebistaren ikusle estandarra hobeto ezagutzeko parada izan dute. Horren bitartez, hortaz, ikusleria jakin horri zuzenduko diote zenbait programa, eta, era berean, zein ikusle berri erakartzeko premia duten jakin dakitenez, horretan ere badabiltza, jakina. Era berean, Oihane Agirrek aurreratu digu emisio orduak luzatzeko asmoa daukatela eta, horrela, gauetan 22:00etara edo 22:30era luzatu ahal izango dituzte emisioak. Horrez gain, ohiko programa batzuk euren formatuan aldaketak izango dituzte, eta programa berriak ere izango dira Goiena Telebistan.

Kontuak kontu, digitalizazioaren aldeko pausoarekin oso pozik agertu zitzaigun Oihane: "Merkatuaren joera horren aldekoa da eta antzeko prezioan aukera askoz zabalagoak eskaintzen ditu. Gure tresneria eta lan-sistema guztiz eskuzkoak izan dira orain arte, eta, duda barik, aldaketak onura handia egingo die. Emisioak analogikoa izaten jarraituko du, baina lan egiteko modua digitala izango da eta etxeetan ere, nolabait, igarriko da aldaketa, produktua oso-osorik hartuta.

IKER BARANDIARAN

## JON ALDANONDO/GOITBko teknikaria

# "Batez ere, barruko lanean igarriko da egindako aldaketa"

GOITBko langileak prestakuntzak bukatzen dabiltza, erronka berri honi aurre egiteko. Horien artean, Goiena Telebistako teknikari Jon Aldanondo

**Zein abantaila nagusi ekarriko ditu telebistaren digitalizazioak?**

Abantaila asko daude, batez ere telebistan bertan lan egiteko prozeduren baitan. Esaterako, postprodukzio digitalaren bitartez, kalitatea handitu eta prozesuan galera gutxiago izango dira. Irudia manipulatzeko orduan ere, aurrerantzean, ordenagailu baten



bitartez kontrolatu ahal izango dugu tresneria. Era berean, muntaketa korapilatsuagoak egiteko aukera emango digu. Orain arte izan dugun arazo bat ere konponduko digu: emititzen dugun bitartean beste tresneria erabili ahal izatea, hain zuzen ere. Edo emisioak ordenagailu batek kontrolatu ahal izatea. Onura asko ekarriko ditu, zalantza barik.

**Telebistari buruz berba egiten denean, digitalizazioa nahastu ohi da. Argi iezaguzu zalantza hori...**

Goiena Telebista digitalerako prestatzen ari da, baina oraindik Euskal Herriko etxe gehienetan seinale analogikoa ikusten da. Lan-prozesu guztia digitalean egingo dugu, baina derrigortuta gaude analogikoz emititzen. Kate gehienek prozesu digitala dute, baina emisioa analogikoa da. Hortik etorriko da, seguruenik, aipatzen duzun nahasketa hori.

**Non ikus daiteke Goiena Telebista une honetan?**

Une honetan, Goiena Telebistako emisioa Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga, Aramaio eta Bergarako zati baten ikus daiteke. Hala ere, hainbat asmoren artean, urte bukaera baino lehenago Antzuolan eta Elgetan Goiena Telebista ikustea espero dugu. Horretan dihardugu.

OKENDO
KIROLAK

DENBORALDI AMAIERAKO LIKIDAZIOA
Azken egunak!

PRAKA GUZTIAK
% 50

KIROL-JERTSE GUZTIAK
% 50

BAINUJANTZI GUZTIAK
% 50

NEGUKO TXAMARRA GUZTIAK
% 50

PRAKA MOTZ GUZTIAK
% 50

TXANDAL GUZTIAK
% 50

FORRO POLAR GUZTIAK
% 50

KAMISETA GUZTIAK
% 50

Maalako Errabala, 13-behea ARRASATE
943 79 92 76.

**Goienkaria** ©
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea:** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea, z/g • 20500 Arrasate
**Egoitza nagusia:** **BERGARA** 20570 Barrenkalea, 33 • 132 postakutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Ordezkaritzak:** **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna, 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: arrasatepress@euskalnet.net
**Aretxabaleta** 20550 Durana, 11 • 151 postakutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: aretxagazeta@euskalnet.net
**Publizitatea:** **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea, z/g • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: publi@goiena.com.
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2001eko irailaren 7a


## *Atzeskua*

MAIDER OSA

# Unai Iparragirre/Kazetaria

**Badira urte batzuk zu ETBn ikusten.**
Bai. 1997an hasi nintzen *Jaiak* saioan. Orduz geroztik gelditu gabe aritu naiz: *Super Bat, Egun ero, Galdestreet, El verano del siglo, Azken Uda Pasa, Jai Apustua* eta *Betimu* programatan aritu naiz, batzuetan aurkezle lanetan, bestetan kazetari lanetan, gidoiak idazten, zuzendari… Dena dela, argi daukat Arrasate Telebistan hasi izan ez banintz, ez nintzatekeela nagoen tokian egongo. ATBn denetik egiten ikasi nuen: editatzen, kazetari lanetan, aurkezten…

**Zein izan duzu programarik gustukoena?**
Bakoitzak berea eskaini dit. *Jaiak* saioan oso jende jatorra ezagutu dut, eta saio hark eman zidan lehenengo aukera. *Super Bat* ere oso gustuko dut. Programa hark erakutsi zidan haur eta helduak oso ikusle ezberdinak direla telebistaren aurrean. Nagusiagoak hipokritagoak dira, eta umeek pentsatzen duten hori esan egiten dute *pentsatutako eran. Galdestreet*-en ere oso gustura aritu nintzen.

**Nola egin zenuen jauzi ATBtik ETBra?**
Kasualitatez. Lagun askori gertatu zaion bezala, nire bizitzari beste norabide bat emanez hasi nintzen, informatika ikasten hasi nintzen-eta. Hobbi bezala, ordea, *Kukaratxa motel, Larrugorritan* eta beste hainbat saiotan aritzen nintzen Arrasate Telebistan. Hura jolasa zen niretzat. Maider Eguesek ETBko ekoiztetxe batera eraman zuen bideo-zinta bat, *Jaiak 97*rako kazetari bila zebiltzanean. Froga batzuk egiteko deitu zidaten, eta horrela hasi nintzen lanean.

**Beraz, telebistako langile ez bazina beharbada informatikaria izango zinateke.**
Segur aski bai, baina eskerrak horrela ez den. Ordenagailuak gustuko ditut, baina beharrezko lanak egiteko. Zortzi orduz ordenagailu pantaila baten aurrean egonez gero, zoratu egingo nintzateke.

**Ikusten duzu Goiena Telebista?**
Bai.

**Zer falta zaio?**
GOITB barrutik ezagutzen dudanez, ikusten dut egiten den ahalegina izugarria dela, eta programa gehiago egotea oso zaila da. Dena dela, haurrentzako programazioan hutsunea nabaritzen diot, eta magazine luze bat ere ongi egongo litzateke.

**Apustuzalea zara?**
Ezta *Jai Apustuan* ere.

**Nongoak dira ezagutu dituzun jairik onenak?**
Ondarroako jaiak oso onak dira, eta baita Bilboko jaiak ere. Aurten izugarrizko ajea izan dut Bilboko jaien erruz. Bermeoko Madalenak ere aipatuko nituzke.

**Ikusten denez, Bizkaia asko maite duzu.**
Bai, batez ere Ondarroa. Nire burua ondarrutartzat dut; gehiago identifikatzen naiz hango jendearekin.



**"Argi daukat Arrasate Telebistan hasi izan ez banintz, ez nintzatekeela nagoen tokian egongo"**

**"Haur eta helduak oso ikusle ezberdinak dira telebistaren aurrean. Nagusiagoak hipokritagoak dira, eta umeek pentsatzen duten hori esan egiten dute"**

► *Arrasatearra / 27 urte / 'Jai Apustu'ko aurkezlea*

## AIPAGARRI



**IÑAZIO OLIVERI**
**Errenteria / MUko errektore berria**

Azken bi legealditan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua izan dena, Mondragon Unibertsitateko errektore berria izango da. Oliverik ez du ofizialki kargua hartuko datorren otsailera arte, Jabier Retegi oraingo errektorea erretiratzen denera arte, baina dagoeneko hasi da lanean.



**JOSE ANTONIO VILLAR**
**Oñati / Aktorea**

*Goenkalek*, ETBko telesail arrakastatsuak, pertsonaia berriak aurkeztu ditu denboraldi honetarako. Eta, aurpegi berri horien artean, urteetan Mondragoen bizi den Jose Antonio Villar oñatiarra. Jose Antonio ogibidez ez da aktorea, baina badaki taula gainean aritzea zer den. Izan ere, urteetan kantari ibili zen, orkestratan, otxoteetan, bakarka..., garai bateko inguruko dantza tokietan eta beste hainbat tokitan.





**Euskara ikastaroak**

**Maila guztiak**
**EGA eta Alfabetatze**
**Matrikula epea: irailak 24**

**Erdu aek euskaltegia**
Garibai 14, 3 · Arrasate
Tel.: 943 770 369
**Udalaren laguntzaz beka sistema**
**Akulu aek euskaltegia**
Masterreka 13, behea · Bergara
Tel.: 943 76 05 18